

URDAIBAI

2023
zenb. 36
.....

© MAGAZINE



INKLUSINOAREN ERRONKA

- | BUSTURIA,
KONTRASTEAK BATUZ
- | ALKARRIZKETA, LUR URIBARREN
TONTORRETA KO PATROIA
- | AKELARREAK ETA URDAIBAI

- | PERRATOKIAK, LANDA-BIZITZAREN
AZTARNAK
- | BUSTURIALDEAK BASO PAISAIA
ALDATZEN DAU
- | GUGGENHEIM URDAIBAI ETA
INGURUMENA LEHENERATZEA

Zure hegaldi-plana konpainia onenean.

**BASKE
PENSIO
NES**
BANAKAKO EGAE

- EUSKADIKO AURREIKUSPEN-PLANEN LIDERRAK
- AHOLKULARITZA ETA PLANEN DISEINUA
- ERRETIROAREN PLANGINTZA
- ZURE AURREZKIAREN ERABILGARRITASUNAREN BALORAZIOA, AZTERKETA ETA PERTSONALIZAZIOA

k
kutxabank

Kutxabank SA Baskide sustatzailea.
Kutxabank Gestion IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.
Kutxabank, SA, Kale Nagusia, 39-32, 48009 Bilbo (B) 2. 415553017. Bizkaia Merkataritza Erregistroan inkestakuta: 3224 Tolosa, 01. Leuzug. 91-58729 Orria, 1. Inskribzioa.

SUSTAPEN HONEN BARRIKO PLANEN ARIKETA MAI-
TERIAREN ETA OSO MANDAREN ARTEKOA DA.

Gu Urdaibai

MUNDU ZORIONTSU BATEN ALDE

Ezgaitasunen bat daukeen seme-alabak daukozen gurasoek hauek aurrera ataratzeko zelan lan egiten daben eta zelan borrokatzen daben ezagutzea miresgarria da. Pertsona zoriontsu eta alaiak hezteko lortzen dabe, eta beren egoeretarako aukera gitxi eskaintzen dabezen inguruneetan lekua egitea be. Mugak gainditzen dauzen maitasunaren indarra da, baina batzuk altuegiak dira eta indar kolektiboagaz bakarrik gainditu ahal izango dira. Politika publikoek beren egitekoa dauke, eta gizarteak berea. Eta ez daigun pentsau gizartea inpersonala danik, izen propioa dogun pertsonok gara, ikastetxeak, enpresak eta zerbitzuak... Inklusioa, errespetua, bizikidetzak, alkartasuna, parte-hartzea... emoten diran edo desiratzen doguzen ikuspegi positiboak dira. Gurea bezalako ongizate-gizarte batek, munduko txoko pribilegiatu batean, sustatu, landu, zaindu... behar dauzen balioak dira. Ziur asko zuzena danetik haratago, zuzena ez dalako beti egokiena, emozino falta izan daike eta, hotza edo bidebakoa izan ahal dalako be.

Bizitza bakoitza mundu bat da, eta Busturialdeko gure uni-bertso txikiak mundu asko daukoz, gurago geunke guztiak orri hauetan islatu ahal izatea. 2015az geroztik, Urdaibai Magazine urtean lau aldiz hurbildu da zuregana, eta askotariko gaiak jorratu dauz. Informazio-zehatzari afektua gehitzen saiatu gara, hau da, gure onena emoten. Estetikoki zaindua eta interesgarria dan eta inor atzean ixten ez dauen egiazko aldizkaria zeure eskuetan jartzeko. 2024rako geure asmoa da ahalegintzen jarraitzea, zenbaki barri bakoitzaren zain egon zaitezen, interesez eta alaitasunez. Urte barri on!

**NUEVA
EUROPA**

ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangotxi, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus
www.nuevaeuropa.eus

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus
tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.
28. orrialdeko argazkia Freepik-etik hartua da.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA DATA: 2023.12.22



AURKIBIDEA



04



20



22



30



36



32

- 04** ERREPORTAJEA. Inklusioaren erronka
- 10** DANONARTEAN.
- 18** KOLABORAZIOA Koro Muro Arriet
Eusko Jaurlaritzako proiektuaren arduradona
- 20** VISIT URDAIBAI. Busturia
- 22** ALKARRIZKETA. Lur Uribarren
Goi-mailako mendi gidaria
- 28** LEKUKO. Akelarreak eta Urdaibai
- 30** KALERIK KALE. Perratokiak
- 32** ZIENTZIAN. Baso paisaiaren aldaketa
- 34** SALTSA PORRU. Besigua
- 36** BERDEAN. Guggenheim Urdaibai
eta ingurumena leheneratzea
- 40** LABUR LABUR.

EZGAITASUN INTELEKTUALA *influsinoaren* erronka

Ezgaitasun intelektualaren errealidadea oso konplejua da, persona horreen diagnostikoak, arazoak, premiak eta menpekotasunak bezain askotarikoa. Panoramika bat egitea gatxa da, baina hausnartzea ona da aurrera egiteko, gizarteratzeak guztion benetako konpromisoa eskatzen dau eta.

A skotan, ezgaitasun intelektualak daukeen pertsonen gizarteratzea lan-merkatuan parte-hartzeagaz identifikatzen da, baina haratago doa. Gizarteratzeak lan-munduan sartzeari buruz berba egiten dau, enplegua lortzeko prestakuntzari buruz, hezkuntza-inguruneari buruz haurtzaroan, arreta medikoari buruz... eta baita egunerokotasunari buruz be, kalean, herrian, autobusean edo auzoko dendan.

Guraso guztiek bildurra sentitzen badabe seme-alaben aldaketen aurrean, eta, batez be, haurtzarotik helduarora igarotzearen aurrean, ezgaitasun intelektualak daukeen seme-alabak daukozen familien tokian jarri beharko ginake. Familiak dira gizarteratzean akatsak detektatzen dabizen lehenak, eta gainesfortzu emozional eta ekonomiko pertsonala eginez pausuak emoten dabezenak, gizarte osoa inplikatzin dauen erronkari aurre egiteko.

Familiak dira inklusinoaren alde borrokatzen diranak. Gurasoak eta, gehienbat, ama borrokalariak, kalez-kaleko super heroiak. *"Nire alabaren haurtzarotik helduarora igarotzeari ziurbakotasunagaz, ezezagunaren aurreko bildurragaz eta nolabaiteko informazio faltagaz egiten deusat aurre; izan be, alkarteek, esaterako Down Syndrome Fundazioak, nire kasuan, 4 URDAIBAI MAGAZINE*



Barrutialdeko Zereginen Ikasketa Gelako tailerra

neurri batean informazioa emoten dabe, baina gu gara pausoa emon eta informazioa hartzera joan behar dogunok. Familiak gara bidea egiten ari garanak, gaur egun dagozen alkarteak beste guraso batzuek osatu ebezan bere garaian", azaldu dau Laura Castillok, Izaroren amatuak (Down sindromea daukon 18 urteko neska bermeotarra).

Familia horreek aurre egin behar deusoen lehen oztupoa non bizi garen da. Zerbitzu gehienak, terapiak, prestakuntza, enplegua eta aisialdiko jarduerak be Bilbon zentralizatuta dagoz *"Gehien aldarrikatu behar dana beren eskubide guztiak dira, etxebizitza duina, soldata duina, pentsino duinak... haiek bizitza osoa egin ahal izateko, gurasoak atzetik egon behar barik, noizbait hil egingo garalako eta inor barik geratu ko dira. Eskualde honetan bizitzea bereziki gatxa da. Ez dago pertsona hauek batera bitzitzeko pisurik, ez dago lanposturik, ez dago ezer. Geure seme-alabek 20 urtetik gorako ikasketak egiteko eskubidea dauke... Konstituzinoak dino danok dogula lanpostu bat eta etxebizitza duin bat izateko eskubidea, baina nire alabak nik baino baliabide pertsonal gutxiago izango dauz, bizitza bilatzeko gatxagoa izango dau. Garrantzitsuena da tutoretzapeko etxebizitzak izatea eta baldintza normaletan bizi ahal izateko dirua izateko eskubidea izatea",* aldarrikatu dau Amaiak, Amaiurreko amatuak (ezgaitasun intelektualak daukon 16 urteko Gernika-Lumoko neska).

HAURRAK IZATETIK HELDUAK IZATERA

Lehen hezkuntzako ikastetxeak uzteak dakarren jauziaren aurrean, Busturialdean ezgaitasun intelektualak daukeen pertsonak bi aukera daukeez: Barrutialdeko Zereginen Ikasketa Gela (ZIG), eskolaren eta lan-munduari arteko zubia, Bizkaian orain dala 30 urte zabaldu zan lehena, eta Bermeoko Institutuko Gela Egonkorra, barriagoa.

"Izaro eskolan ikasgelan erabat integratuta egoan, beste haur batzuekag partekatzen eban irakasle laguntzaile batezag. Baina ikastetxetik irteteen, Bermeon ez egoan aukerarik. Aukerak, Bilbora edo Gernika-Lumora joatea zan. Mugitu egin behar izan genduan, eta Berritzegunearen bidez, Bermeoko Institutuan lehen Gela Egonkorra zabaltzea lortu genduan", dino Laurak.

Bi ikastetxeetan, neska-mutilek 20 urte arte iraun daikeez.

Txaro Zarandona, Arratzuko Zereginen Ikasketa Gelako tutore eta PTa (Pedagogia Terapeutikoko irakaslea) da. Bertara, egunero ezgaitasuna

intelektuala daukeen 8 neska eta mutil joaten dira: *"Hasieran, familia guztiak datoz bilurrezag. Kasu batzutan hona etortea atzeratzen dabe batzuk be. Izan be, neska-mutilek bi urte gehiago emon ahal dabez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasturtea errepikatuz, eta jauzia emoteko bildur horregaitik, atzeratu egiten dabe ZIGerako sarrerra. Gero damutzen dira lehenago ekarri ez izanaz. Gurasoek uste dabe babes handiagoga emoten deuseela han mantenduz, baina hemen berehala nabaritzen dabe hobekuntza. Nagusitzen laguntzen deuse. Haur izateari utzi behar deusoe gazte izateko, eta jauzi hori hemen egiten dabe"*

Barrutialdeko ZIGen ikasleak lan-munduan eta gizartean gero eta autonomoagoak izatea da lehentasunezko helburua. Prestakuntza lan-merkatuan sartzera bideratuta dago, eguneroko bizitzan be autonomoak izan behar dabela ahaztu barik. Prestakuntza emoterakoan, kontuan hartzen dabez desbardiintasunak eta aniztasunak modu positiboan. *"Ez da programa uniformea, ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako prestakuntza-plana egiten dalako. Alkarren artean desbardiak dira, eritmo eta beharrian desbardiak dauke. Prestakuntza-plana epe luze-ara planteatzen da, lau urtera, baina barriro*

ikusi eta egokitu be egiten dogu. Lau arlo nagusi lantzen dira. Autonomia, autonomoak izatea bizitzan, lanean eta gizartean. Tailerrean jorratzen dogu, ikasgelan, edo baita lantzen daben ortuan be. Komunikazioa, matematikagaz eta euskara klaseekaz lan egiten doguna, matematika maila funtzionalean behar dabelako beren bizitzan (diruagaz moldatzen jakitea, adibidez) eta idatzizko eta ahozko ulermenaren behar dabelako. Trebetasun sozialak, esaterako kortesia-arauak, distantziak mantentzea, txanda errespetatzea, egoera desbardinetan egoten jakitea. Lan-prestakuntza, lan-ohiturak lantzen doguz. Gauza sinpleenatik hasita, hiru orduz aulkibatean geldirik egoten jakitea edo ordutegiak errespetatzen jakitea, eta makinak maneiatu eta lan-mundura orientatzea, besteak beste ", azaldu dabe Barrutialdeko ZIGetik.

LAN ETA BIZITZA DUINA

Busturialdean, neska-mutil hauen lan merkatutarako sarrera Lantegi Batuak-en dago batez be. Gorabidek, adimen ezgaitasuna daukeen Pertsonen Aldeko Bizkaiko alkarteak, sustatzen dau erakunde hori, eta ezgaitasuna daukeen pertsonentzako lan-aukerak sortzen dauz Bizkaian, haien inklusioa, ahalik eta garapen handiena eta bizi-kalitatea onena lortzeko. Gernika-Lumoko Lantegi Batuak zentroan 63 pertsonak egiten dabe lan, 27 emakume eta 36 gizonak. "ZIGeko gure ikasleek praktikak egiten dabez bertan azken ikasturteko azken hiruhilekoan, ia % 100 bertan geratzen dira, eta haien ezaugarrien eta gaitasunen arabera egiten dabe lan. Badira loragintza enpresetan, Busturian eta Zornotzan, gasolindegietan... lan egiten daben batzuk be ", dinoe Barrutialdetik. Txaro Zarandona PTK aipatzen dauenez, "erakundeen aldetik oindino asko dago egiteke. Enpresei laguntzak erraztu behar jakez ezgaitasun intelektuala daukeen pertsonak kontratatzeko. Gizarte mailan aurrera egiten da, baina inbertsino instituzional handiagoa behar da. Gainera, pertsonalaren eta baliabideen murrizketak jasaten jarraitzen dogu pertsona horreen prestakuntzan, eta haien karguan gagozen pertsonok askotan ez dagokigun lana egiten dogu. Ez badago inor klaseak amaitzean autobuseraino laguntzeko, ez doguz bakarrik ixten".



Barrutialdeko ZIG-eko ikasleak lorazaintzako klasean.

Ezgaitasun intelektuala jorratzeko konplejutasuna areagotu egiten da Autismoaren Espektroko Nahaste (AEN) ari garenean. Premisa hau hartu behar da abiapuntutzat: AEN dauken pertsona guztiek ez daukee ezgaitasuna intelektuala. Zentzu horretan, lan-mundura heltzeko bideak be desbardinak dira. Bizkaiko Autismoaren Espektroko Nahastea (AEN) daukeen pertsonen familiak batzen dauzen APNABI Autismo Bizkaia alkarteak kudeatzen dau pertsona horreen laneratzeari. "Alkartetik laguntza eta aukerak eskaintzen doguz arlo guztietan eta bizi-ziklo osoan zehar. Autismoa daukeen pertsona bakoitzak - eta bere familiak - bere bizi-proiektua gara daian lagundu gura dogu. Busturialdean Eguneko Arretarako zentro bat daukogu Gernika-Lumon, "Lurgorri" izenekoa, helduei zuzendua eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz hitzartua. Hemen, beren autonomia eta gizarteratzea, ongizatea, osasuna, aisialdiko interesak eta abar garatzeko jardue-

Zerbitzu gehienak, terapiak, prestakuntza, enplegua eta aisialdiko jarduerak be Bilbon zentralizatuta dagoz.

rak sustatzen doguz. AEN dauken eskualdeko pertsonak APNABI Autismo Bizkaia daukozen programa guztiak eskuratzen dabez. Programa horreek, helduen kasuan, bizitza independentea babesteko, laneratzeko edo enplegu lagundua lortzeko, prestakuntzarako, aisialdiko eta denbora libreko jardueretarako, familiei laguntzeko eta abarretarako dira. Programa horreetako batzuk eskualdean egiten dira", azaldu dau Ainhoa Basarrate Astobizak, APNABI Autismo Bizkaiko komunikazio-arduradunak. Zerbitzuak familien premieka parekatzea lan gata da, are gehiago kontuan hartuta beharizan horreek pertsona bezain askotarikoak dirala. APNABI Autismo Bizkaia, 1600 bazkide dauko, eta horrenbeste 1600 autismo kasu.

Gizarteratzean aurrerapausoak emoten ari diran arren, oindino asko dago egiteke, "Lan-gaia korapilatsua da. APNABI prestatzen dabez lanera joan daitezcan, baina... nora? Busturialdean, dakigula, ez dago ezgaitasun intelektuala daukeen neska-mutilik onartzen dauen enpresarik. Ondo legoke eskualdeko enpresaburuei ezgaitasunen bat daukeen pertsonak kontratatzeko izan daikeezen laguntzen barri emotea. Bilboko Down Sindromea fundazioan, adibidez, han bertan emoten deutse lana, Down Sindromea daukeen pertsonak

dagoz bertan lan egiten harrera zerbitzuan. Baina jakina, Bilboraino joan behar dozu ", adierazi dau Ana Perezek, autismoa daukon Gernika-Lumoko 18 urteko Ekaitz mutikoaren amatuak.

APNABI Autismo Bizkaiatik aipatzen dabenez, "urtero egiten dogu prospekzio lana Bizkaia osoan, enpresekaz harremanetan jarritz gure errealidadea azaltzeko. Gainera, laguntzadun enplegua egiten dogu, dagozen lan-eskaintzak ikusi eta enpresa horretako hautaketa-prozesuak gainditu ondoren, APNABI Autismo Bizkaiko profesional batek laguntzen deutso bere zereginetan kontratatutako autismoa daukon personari".

Pertsona horreen gaitasunak, arazoak eta beharizanak askotarikoak diran arren, pertsona horreen familien erreibindikazioak bardinak dira eskualdean. "Hemen Busturialdean ez dot horrelako jendea lanean daukon dendarik ezagutzen. Lanaren gaia oso gata da, eta horrek ez dau errazten independentzia ekonomikoa izatea. Pertsona

horreentzako egoitzarik be ez dago, ezta batera bizitzeko etxebizitzarik be. Eskualdean adinekoentzako egoitza asko dagoz, baina tutoretzapeko etxebizitzarik ez dago, ezta pertsona horreentzako egoitza espezifikorik be. 60 urtera iristen diranean bakarrik daukee egoitza geriatrikoetan sartzeko aukera. Dagozen plazak euren inguruntetik kanpo dagoz, geure seme-alabek ezagutzen daben eremutik kanpo, eta jendeak haiek be ezagutzen daben ingurutik kanpo ", aldarrikatzen dau Amaiurreko amatu Amaiak.

"Nik beti amestu izan dot Ekaitz beste batzuek batera bizitzeko etxebizitza batean bukatzea, baina hemen ez dago horren aukerarik. Era horretako etxebizitza guztiak Bilbon dagoz. Autismoa daukon mutiko bat Gernikatik Bilbora ateratzea, bat-batean han beste pertsona batzuek bizitzera joatea gehiegi da", aitortu dau Anak Ekaitzen amatuak.

Hain zuzen be, geure eskualdeko alde positiboetako bat, ezgaitasun intelektuala daukeen pertsonentzat, hurbiltasuna da. Horrek autonomia handiagoa eskuratzeko aukera emoten deutse, seme-alabak eurentzako leku seguru batean moldatzen ikusten dabezen gurasoentzako lasaia-suna dana. "Herri txikiago batean gurasoentzat autonomia seguruagoa da. Haien autonomia irakasten deusagunaren menpe dago, geure lanaren menpe, edozein fundazio edo laguntza baino haratago.

>>>



Gernikako Fenomenoak taldea bere partiduetako batean . Argazkia: Lointek Gernika KESB

Izaro oso autonomoa da Bermeon, baina ni ez naz ausartzen Bilbora eramaten. Ez da izan daikeezen gaitasunagatik, euren errubakotasunagatik besteek egin daikeezenaren bildurragatik baizik ", azaldu dau Laura Castillo Izaroren amatuak.


FENOMENOAK, GUZTIA LORTZEKO GAI
Aisia eta kirola be inklusinoa dira. Gai honi dagokionez, familiek aldarrikatzen dabe Busturialdea eskualde defizitariora dala, nahiz eta oraintsu Lointekeko ezgaitasun intelektuala daukeen pertsonen saskibaloi-taldearen agerpena ("Fenomenoak") asko egiten ari dan familia horreen inklusinoaren eta ilusionaren alde. "Orain dala hiru urte, Bizkaiko Saskibaloi Federazioak ezgaitasun intelektuala daukeen kirolarientzako Liga bat sortzeko proiektuari ekin eutson. Urte eta erdiz aritu ginan lanean, Ana Ormaetxe eta biok, Urdaibai inguruko hainbat alkateekaz harremanetan, parte hartu gura eben jendea erakartzeko. Lantegi Batuak-en bidez proiektuaren aurkezpena egin genduan, eta azke-

"Gure klubaren parte dira. Gizartearen parte dirala sentiarazten deutse eta hori da inklusinoaren azken helburua"

nean helburua lortu genduan. Orain 14 jokalaria doguz eta ezgaitasun intelektuala daukeen personen hirugarren ligan parte hartzen dogu ", azaldu dau Naia Fernandez Lointek Gernikako komunikazino eta

Ezgaitasun maila

Bizkaia 2020ko iraila



ekitaldien arduradunak.


Entrenamendu bakoitzean, partida bakoitzean, neska-mutil horreek arduratzen dira ezbardintasuna existitzen ez dala erakustez. "Integratuta sentitzen dira eta harremanak daukeez beste neska-mutil batzuek. Alkarrengandik ikasten dabe. Gaitasun desbardinetaoak dira eta alkarri laguntzen deutsoe. Ekaitz, beti bere burbuilan dagoena, gustura dago taldean. Adiskidetasun ikaragarria sumatzen da. Partiduetara zoazenean, txispa piztuta ateratzen zara. Nire ustez, jende askok, familiakoak ez izan arren, partiduetara joan beharko leuke, oso giro ona dagoelako. Gainera, entrenatzaileak apartekoak dira. Danak ateratzen dabez eta haiekaz konektatzen jakin dabe. Edozein talde moduan tratatzen dabez. Eta neska-mutilek eurekiko harremana be holakoa da", dino Anak Ekaitzen amatuak (autista).

"Ez dago norgehiagokarik, hemen guztiek hartzen dabe parte. Ez dabe inolako diskriminaziorik egiten. Gainera, kirola oso garrantzitsua da eurentzat, osasun mailan sedentarioagoak diralako eta ariketa oso ondo datorkie ", azaldu dau Laurak, Izaroren amatuak (Down sindromea).

"Zorionez bi entrenatzaile zoragarri doguz, Maite Bilbao eta Maite Rafael. Oso jende trebatua da, gogotsua. Funtsezkua da haien sentsibildadea eta entrenamendu bakoitzari zelan egiten deutsoen aurre. Jokalariek sozializatzeko beste nukleo bat daukee orain, eta ez hori bakarrik, klubeko partaide sentitzen dira. Gure klubaren parte dira. Gizartearen parte dirala sentiarazten deutse eta hori da inklusinoaren azken helburua. Familiak oso eskertuta dagoz. Ekaitz, autismoa daukon mutilak, esaterako, lehen entrenamenduetan besteekin kontaktu fisikoa izatea ez eukan gustuko, eta hiru hilabete geroago, Bilbao

Ezgaitasun mota

Bizkaia 2020ko iraila



Basket txapelketan parte hartu gendunean, txapeldunorde izan ginenean, besarkadak emoten eutsoezan taldekideei eta aurkariei. Uste dot lan ona egin dogula, Open Day-an Emakumezkoen Ligako gure jokalarien eskutik joan ziran, ikastetxeetara eraman genduezan... Baina beraiek emoten deuskue normaltasun eta inklusio eskarmen tuak. Ereduzkoak dira eta ez dabe desbardintasuna ikusten", aitortzen dabe Lointek Gernikatik.

BIZKAIAN, BIZTANLERIAREN %5,8K DAUKO EZGAITASUNEN BAT

Gizarte Ekintza Sailaren datuen rabera (2020ko iraila), Bizkaian ezgaitasunen bat daukeen 66.853 persona dagoz. Ezgaitasun motak hiru edo lau talde handitan sailka daitekez: fisikoa, sentsoriala, intelektuala eta psikosoziala edo psikikoa. Talde bakoitzaren barruan ezaugarri eta kausa espezifikoak daukozen azpimotak dagoz. Persona batek ezgaitasun mota bat baino

gehiago izan daikeez, maila desbardinetan.

Bizkaian, ezgaitasunagaz "bizi" diran familiek, batez be, Bizkaiko Foru Aldundira jo behar dabe dagozkien laguntzak eta baliabideak eskatzeko. Gizarte Ekintza Saila arduratzen da zerbitzua kudeatzeaz, eta, horretarako, bere lan-estrategiaren eta gizarte-ongizatearen oinarri lez, Bizkaian ezgaitasuna daukeen personen parte-hartzerako eta bizi kalidaderako planean (2021-2023) dauko ibilbide-orria. Plan hori egiteko, Eusko Jaurilaritza eta ezgaitasuna lantzen daben gizarte-erakunde asko be izan dira. Erkidegoan Parte Hartzeko eta Bizi Kalidaderako Eredua hartu dau erreferentzia lez "Plan" honek, ezgaitasuna kudeatzeko eredu bat, ezgaitasunaren gizarte-erakundeek Bizkaian egindako ibilbidetik sortua. Izan be, alkarte horreek dira egunerokoan dagozenak eta beharrianak antzeman daikeezanak eta

irtenbideak, proposamenak, prozedurak, ereduak, zerbitzuak eta laguntzak aurrera-tu eta barritu daikeezanak.

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN GARRANTZIA

Ezgaitasuna fenomeno konplejua da, eta ez dau pertsona modu isolatuan hartzen, komundadea bere osotasunean hartzen dau. Gizarteak zeregin aktiboa eta solidarioa izan behar dau, eta, alde horretatik, Hirugarren Sektore Soziala izenekoa funtsezkua da. Hirugarren sektoreak herritarren ekimeneko eta irabazi-asmo bako erakundeak batzen dauz, interes orokorra eta persona guztien eskubideen defentsa bultzatzen dabenak, bereziki egoera ahulenean dagozenei. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Barometroaren datuek haren dimentsinoaren barri emoten dabe: egoitza eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan daukeen 4.000 erakunde baino gehiago, 160.000 boluntario eta 40.000 langile baino gehiago batuz. EAEko BP-Gren % 2,4 dira.

Abenduaren 3an, Ezgaitasuna daukeen Pertsonen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Lorpen bakoitza lorpen handia da, eta ahalegin handia egin da, bai bakarka, bai taldean. Bardintasuna eta inklusinoa lortzeko bide horretan, sareko lana funtsezkua da ezgaitasuna daukeen personei bitzita hobe emoteko eta aurre egin behar deutseen erronka nagusietan aurrera egiteko, esaterako arreta goiztiarrean, hezkuntzan eta lanbide-heziketan, lane-ratzean, bitzita independentean, aisialdian eta gizarte-jardueran, kirol inklusiboan edo irisgarritasunean. **UM**





ARRATZUKO

UDALA

IDENTIDADE DUN TURISMOA

Herrian hain nabarmena dan kultura-ondarearen bidez turismo-garapen iraunkorra bermatzear Arratzuko Udalaren ildo estrategikoetako bat da. 2014an zabaldu zan Arrola-gune, Arrolako *Oppidum*aren Interpretazio Zentroa, Arrola mendia koroatzen dauen 2. Burdin Aroko herrixka eta bere bizimodua ezagutarazteko erakusketa dibulgatzailea, zehaztasun historikoz garatua. Hamargarren urteurrena betetzear dagoela, urte hauetan gozatu daberen bisitarien kopuruak bermatzen dau gune hau zabaltzea. Bere interes historiko, kultural eta turistikoagatik eta baita udalerriko bizitza errespetatzen dauen turismoaren erakusle dalako be. Domekero, 10:00etatik 14:00etara, Arrolagunera hurbiltzen diranek, Loiola auzoan, doako bisita gidatuaz gozatzeko aukera daukee Arrolako kastro monumentala deskubriduz.



BUSTURIKO

UDALA

LANDA-BIDEAK BALDINTZA EGOKIETAN MANTENTZEA

Landa-auzoetarako bideak eta sarbideak mantentzea gobernu-programaren helburua da, eta arreta, lana eta baliabideak eskaintzen jakez. 2023an, besteak beste, Goierri auzorako bidean, Larragon, Atxirikan eta Bollegin jardun da. Ekintza batzuk izan dira uholde-euriteek eragindako lur-jausiak konpontzea. Beste kasu batzuetan, erorketetan jardun da zorua erortzeko arriskuak prebenitzeko. Irisgarritasun ona funtsezko faktorea da landa-auzoetako bizi-kalidaderako. Erosotasuna eta segurtasuna emoten deutse bertan bizi direnei, eta biztanleria sendotzen laguntzen dau. Konponketa- eta hobekuntza-lan guztiak egiteko inbersinoa 350.000€-tik gorakoa izan da. Inbersino hau finantzatzeko, Udalak Estatuaren dirulaguntza bat kudeatu dau (150.000€) hondamendi naturalen ondorioz kaltetutako udal-titulartasuneko azpiegiturak eta zerbitzuak konpontzeko edo lehen-goratzeko obrak egiteko diru-laguntza, hain zuzen be.



EAKO

UDALA

HERRI BATZARRAK AUZOZ AUZO

Udalaren helburua da proiektuak garatzea eta udalerria hobetzea, auzotarren benetako beharrezanaren arabera; horregaitik dira garrantzitsuak auzokideen ekarpenak entzuteko antolatzen diran batzarrak. Herritarrak dira euren auzoetan behar dana ondoen dakitenak eta. Eako Udalak pasa dan azaroaren 17, 18 eta 19an Herri Batzarrak burutu ebazan herriko hiru auzoetan, Natxituan, Bedaronan eta Ean. Helburu bikoitza izan da. Alde batetik, herri programaren arira hurrengo lau urteetarako, auzo bakoitzean egiteko asmoak edota proiektuak zeintzuk diran auzokideei azaltzea. Herri programaren barruko asmoak eta proiektuetako batzuk amankomunak dira baina beste batzuk auzo bakoitzari egokituak, horregaitik egin ziran Herri Batzarrak auzoz auzo. Herritarrei informazioa adierazteko erabiltzeaz gain, esanguratsuak diran erabakiak hartzeko gune be badira Herri Batzarrak. Hori dala ta, Herri Batzarren bigarren puntua, oindino garrantzitsuagoa, herritaren ekarpenak entzutea izan zan. Auzokideek azaldu ebeen zer uste ebeen herrian hobetu leikela. Horretarako, udalak diru partida bat dauko aurrekontuan sartuta, 15.000 eurokoa, auzotarrek herri batzarretan planteatutako jarduketa egingarri eta bideragarrietarako.



EREÑOKO

UDALA

OINEZKOEN ERABILERA LEHENTASUNEZKOA ELEXALDEN

Ellexalde Ereñoko aisialdi sozial eta kultureko gune lez sustatzea da Udalaren helburua, ibilgailuen sarrera hegoaldeetik, eleiza, herriko taberna eta inguruaren artean, desbideratzeko proiektuan. Jarduketak plazaren kalitatea hobetuko dau, eta orain dala gitxi egindako urbanizazio-obra baten bidez espazio horri emondako lehentasunezko oinezkoentzako erabilera erraztuko dau. Gainera, seguruagoa izango da bizilagunentzat. Horretarako, eleizaren atzealdearen eta *"Ereño-Museoa"* garaiaren arteko bidea zabalduko da, eta horrek hobetu eta erraztuko dau ibilgailuen sarbidea iparraldetik. Proiektuaren helburua da bidea 2 metroraino zabaltzea, ibilgailuen zirkulazioaren zatirik handiena pasabide horretatik desbideratzeko, eta, horrez gain, egoteko gune bat egokitzea. Urbanizatuko dan eremua 400 m²-koa da, orain horma batek mugatua.



ERRIGOITIKO

UDALA

LANDA BIZITZA BETEA ERAIKI

Aisialdi soziokulturala bultzatzea da Errigoitiko Udalaren helburu estrategikoa, udalerriak aisialdiaz bizitzeko eta gozatzeko daukon erakargarritasuna handitzeko, 2024ko aurrekontuko zerbitzuak eta inbersinoak alde batera utzi barik. 844.901€ dira, aurreko urtean baino %7,26 gehiago, ekimen interesgarriak eta ludikoak sustatzeko egituratuak, biztanleria-segmentu guztiak erakartzeko eta haien itxaropenei erantzuteko, batez be gazteenarena, haren sustraitzearen menpe baitago herriaren birsorkuntza eta gizarte-, lan- eta ingurumen-etorkizuna. Udalekuen eta jubiladuen bidaiaren arrakastak, azken hau ia hamarkada bat ospatu barik egon ondoren berreskuratua, udaleku 2024rako eta udal ludotekarako inbersinoa % 226 handitzea eragin dau, 16.300€-tik gorakoa izateraino. Arlo osasungarrirako, pilates eta yoga klaseak esaterako, eta soziala, nagusien bidaia edota mendi txangoak egiteko 12.000€ aurreikusi dira. Jaietako partida 12.000€-ra arte igo da.



FORUKO

UDALA

UDAL TABERNAK ATEAK ZABALDU DAUZ

Foruko Tabernak eta bere kudeatzaile barriek, sektoreko profesionalek, Foruko bizitza soziokulturalaren eragile dinamizatzaile lez lan egiteko konpromisoagaz hasten dabe lan jarduera, zerbitzu profesionala emoteko helburuagaz eta kalidadezko eskaintza enogastronomikoa eskaintzeko bermeagaz. Herriko beharrianak betetzeko, armozuak, errazinoak, bazkariak eta afariak eskainiko dabez, hanburgesak edo mediterraneoko janaria aukeratu ahal izango da. Plater tradizionalen eta sukaldaritzako modernoko konbinazinoa, denboraldiko produktuei eta KMo produktuei lehentasuna emonez. Publikoak karta zabal bat aukeratu ahal izango dau, gustu eta bizitza-filosofia guztietarako. Ogia be salduko da. *Foruko Tabernak* ekitaldi kultural eta gastronomikoak antolatuko dauz, kontzertuak, mus txapelketak, dastatzeak eta abar, eta Foruko Udalak antolatzen dabezen jardueretan parte hartzeko prest egongo da beti.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

2024rako GIMNASIO BAT

Herritarrei bizimodu aktibo eta osasungarria erraztea oso presente dago Gautegiz Arteagako Udalaren kudeaketan eta Herriko Plazako udal lokal bat gimnasio lez egokituko dau. Udalaren eta Kultur Etxearen artean, zerbitzu barri honek 50m²-ko gunea izango dau. Lokala herriko erdigunean egongo da, guztiz eroso, kirolzale guztiek erabiltzeko eta gozatzeko. Udalak lehiaketara atara dau gimnasioko ekipamendua hornitzeko eta instalatzeko kontratazinoa, 32.000,00 €-ko oinarrizko lizitazino-aurrekontuagaz. Kirol-instalazino barriak makina eliptikoek, bizikleta estatikoek, pesek, muskulazino-bankuek, funtzio anitzeko makinek eta erresistentzia-makinek osatutako entrenamendu-ekipo oso bat izango dau. Dutexek eta zerbitzuek osatuko dabe gimnasioa. Honi esker, herrian estalpeko kirola egin gura dabenek ez dabe beste udalerri batzuetara joan beharko.



GERNIKA-LUMOKO

UDALA

ARRAPALA MEKANIKO BATEK ERRAZTUKO DAU ANBULATORIRAKO SARRERA

Gernika-Lumoko lehentasunezko zerbitzua dan anbulatokia iritstekoa oinezkoentzako irisgarritasuna erraztea eta bermatzea, udalaren helburua da eta horretarako San Juan kaleko malda handia gaudituko dauen arrapala mekaniko bat aurreikusi da. Proiektuaren arabera arrapala mekanikoaren sistemak bi tarte izango dauz, bata 36,852 metrokoa, 6 metroko desnibela gaudituko behar dauena, eta bestea 20,972 metrokoa, 3,2 metroko desnibela gauditzeko. Lehenengoa Artekalen hasiko da eta osasun zentroko ia ateraino iritsiko da. Arrapalaren instalazinoagaz, herritar guztien bizi-kalitatea hobetuko da, udalerriko goiko aldearen eta beheko aldearen artean mugitzeko orduan, eta, bereziki, mugitzeko edo arnasteko arazoak daukozen pertsonena, adinekoena eta osasun-zentroko erabiltzaileena. Inbersinoaren aurrekontua 1.007.150,5€-koa da. Udalak dagoeneko egin dau bideragarritasun-azterlana eta aurreproiektua idatzi dau.



IBARRANGELUKO

UDALA

BARRIZTAU ENERGIA AURREZTEKO

Ibarrangeluk ingurumenagaz eta jasangarritasunagaz daukon konpromiso estrategikoaren esparruan, udalaren eraikina egokitu egingo da eta kalidade energetikoa emongo jako. Energiaren aurrezpena eta efizientzia dira helburu nagusiak. Hasierako jarduketan artean, erlatxean eta teilatuan hainbat akats konpontzea dago, teilabarritzea eta bigarren fasera begira prest ixteko beharrezko erabarritzea dagoz. Bigarren fase horretan, eguzki-plakak jarriko dira estalkian. Fase honetan, energiaren ikuspegitik beste hobe-kuntza garrantzitsu bat egurrezko leihoak barritzea da, beste leiho barri eta eraginkor batzuek, egurrezkoak horreek be. Hezetasunak saneatu eta margotu be egingo da. Lehen fase honetako aurrekontua 132.000€koa da, eta udalak hainbat dirulaguntza eskatu dauz inbersinoari aurre egiteko. Oraingoan, 60.000 euroko dirulaguntza adjudikau deutso Bizkaiko Foru Aldundiak.



KORTEZUBIKO

UDALA

LED FAROLA GEHIAGO, ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ETA EKONOMIKO GEHIAGO

Udal jasangarria eta energetikoki eraginkorra eta aktiboa izatea, aldaketa klimatikoaren aurrean, Udalaren kudeaketa-estrategian konstantea da, eta hori lortzeko beharrezko pausuak emoten jarraitzen dau. Prozesu horretan, hurrengo pausua 83 argi barritzea da, eta hoi ordez LED teknologia eraginkorretako ekipoak jartzea. Jarduera horrek energia eta CO₂ isuriak aurrezteko ekarriko dau, baita aurrezpen ekonomikoa be. Aurreikuspenen arabera, CO₂ isuriak % 59 murriztuko dira. Kontsumoari dagokionez, urtean 30.627 KWh aurreztuko dirala kalkulau da. Ordezkatu behar diran farolak Elizalde inguruan eta udaletxearen kanpoaldean dagoz. Jarduera hau egiteko inbersinoa 39.995€+ BEZa da. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntza eskatu jako, 29.412,96€-ko diru-laguntza emon dau.



MENDATAKO

UDALA

IKASKETA GELA BARRIA

Mendatako Udalak bere kultur zerbitzuak indartuko dauz, mendatar gazteentzat ikasketa-gela barriategaz. Elizozte eraikineko azken solairuan egongo da, espazio lasai eta eroso, ikasi behar dabenek baldintzarik onenetan egin ahal izan daiezan. Lokalak talde-lanak egiteko gunea, berba egin ahal izateko lekua, ikasteko isiltasun-gunea, ordenagailuetarako gunea eta atsedenekua bereiziko dauz. Lokala egokitzeko, pintau, argiztapena hobetu eta altzari barriak jarri besterik ez da egin behar. Sarbidea giltza digitalagaz izango da, mendatar guztiek eskatu ahal izango dabena, eta etorkizunean lokalera sartzea aplikazino mugikor baten bidez egiteko aukera aztertuko da. Ikasgela barriak gazteentzako txokoa hartuko dau. Gazteen Txokoa Ludotekaren erainikera pasako da, aisialdirako gune bateratu bat sortzeko.



MORGAKO

UDALA

LED AZKEN TEKNOLOGIADUN ARGIAK

Morgako Udalak Udal titulartasuneko Kanpoko eta Barruko Argiteria instalazinoak barrituko dauz, teknologia zaharkituko 99 argi-puntu guztira. Jarduera honen bidez, VSAP teknologiako eta Halogenuro metalikoko luminarien ordez, merkatuan dagoen LED azken teknologiekaz garatutako kale-argiak jarriko dira. Helburu nagusia da jardun-eremuaren energia-eraginkortasuna hobetuko dauen konponbide bat eskaintzea (energia elektrikoaren kontsumoa murriztea), argi-mailak optimizatzea (argi-kutsadura murriztea eta ikusmen-erosotasun handiagoa), mantentze-lanak eta -kostuak murriztea eta proiektuan aipatutako espazioetan balio estetiko erantsia emotea. Udalak dagoeneko esleitu dau instalazinoak barritzeko eta eraginkortasunez erabiltzeko kontratua, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun Sailaren laguntza dauko: 58.845,21 €.



MURUETAKO

UDALA

INBERSINO GEHIAGO ENERGIA JASANGARRIRAKO

Sare elektrikoaren alternatiba jasangarria, ingurumena errespetatzen dauen eta ekonomikoki errentagarria dan inbersinoa izateaz gain, elektrizitatea sortzeko eta ondoren kontsumitzeko instalazioak fotovoltaiakoak dira.

Trantsizino energetikorako estrategia aktibo eta klima al-daketaren aurrean estrategia arduratsuagaz, Muruetako Udalak 25,07 kWp potentziako sistema fotovoltaiako bat jarri dau udal frontoiaren estalkian, 54 eguzki panelekoa. Honek energia elektrikoa sortzen dau inolako motor edo alternadore barik eta inolako hondakin edo zarata eragin barik. Gainera, monitorizazio-sistema bat dauke sortzen daben energia eraginkortasunez kudeatzeko. 36.222€-ko inbersinoa, Bizkaiko Foru Aldundiko 21.520€-ko dirulaguntzagaz, beste pausu bat da udalak iraunkortasunaren alde egiten dauen apustuan. Jarduera hau udalerriko beste energia-jarduera garrantzitsu batzuei gehitzen da, besteak beste, bidegorrian LED teknologiko 32 farola jartzeko proiektua.



102.6 FM

Bizkaitik
Bizkai osora
informazinoa zabaltzen
dauan euskarazko
irrátia



www.bizkaiairrátia.eus

kulturklik

www.kulturklik.euskadi.eus

Agenda
kultural osoa,
klik batean

Toda la agenda
cultural,
en un *klik*

Tout l'agenda
culturel
juste à un *klik*

All the cultural
agenda
in a single *klik*



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

+ 60 Talentuak ez du erretiroa hartzen

KORO MURO ARRIET

Eusko Ikaskuntzako proiektu arduraduna

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Eusko Ikaskuntzarekin eta Helduak Adi! elkar-tearekin elkarlanean, +60. Talentuak ez du erretiroa hartzen proiektua abian jarri du Euskal Herriko bi tokitan: Gasteizen eta Busturialdean.

TESTUINGURUA

Gizartea gero eta gehiago arduratzen da pertsonak lan-mundurako prestatzeaz, eta etengabeko hezkuntza- eta prestatuntza-programak eskaintzen ditu lan-merkatuaren eraldaketetara egokitze-ko. Hala ere, ez zaio arreta bera ematen bizi-zikloaren etapa berri baterako trantsiziorako eta hura bete-betean bizitzeko prestaketari, horrek eragin pertsonala, familiarakoa, soziala eta ekonomikoa izan dezakeen arren.

Beharrezkoa da pertsona guztiei eskaintzen dien ikuspegia hartzea, haien lan-egoera, generoa edo beste edozein baldintza kontuan hartu gabe, bizitzaren etapa berri hau ahalik eta ondoen bizitzeko berdintasunean prestatzeko aukera. 65 urtetik gorakoei sozialki esleitutako rola- ren eraldaketak eta desgaitasunik gabeko

bizi-itxaropenaren hazkundeak erreti-ro-adinetik haratago laguntzen jarraitzen duten pertsonen gizarte-potentziala zabaltzen dute. Horri esker, rol berriak har ditzakete eta ekintza-askatasun handiagoa lor dezakete, zahartzeko moduari erantzunez, hazkunde pertsonalarekin jarraituz eta komunitatearen eta gizartearen erabilerako jarduera berriak bultzatuz eta horietan parte hartuz.

Hori lortzeko, pertsona bakoitzaren interesak, balioak, trebetasunak eta gaitasunak identifikatu behar dira, pertsonalki eta sozialki hazten jarraitu ahal izateko eta bizitza osoa bizi ahal izateko, bakoitzaren ibilbidearen eta inguruabarren arabera.

Zehazki, *"Bizitza betea/Vida Plena"* zahartze-ikuspegia eta pertsona horiek gaitzeko plana da. Paradigma berri baterantzko aldaketak, zahartze aktibotik bizitza osora, zahartze aktiboaren ikuspegia integrazten etaosatzen du. Perspektiba aldaketa bat da, zahartzeak zer esan nahi duen ez dakarrena. Pertsonak – adinekoek eta ez gehienek – lortu nahi duten helburua bizitzan zehar etengabe garatzea da. Adinekoen nahia eta ahalegina ez da fase aurreratu batera iristea, non zahartuta, jarduera eta dinamismo sozialari eutsiko dioten, baizik eta beren bizi-garapena osatzea, bizitzan zehar landutako beren dimentsioen garapenean aurrera egitea, eta agian esploratu gabeko beste batzuk aurkitzea eta jorratzea.

60+ lan-mundutik erretirorako trantsizioan edo erretiroaren lehen urteetan daudenentzat bereziki diseinatutako trebakuntza-programa da. Denbora ahalik eta gehien aprobetxatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta erretiroa esperientzia atsegingarri eta aberasgarri bihurtzeko beharrezkoak diren tresnak eta trebetasunak ematea da helburua.

BIZITZA BETE BATERAKO KONPETENTZIAK

Erretiroa etapa zirrargarria izan daiteke,

baina erronkak ere izan ditzake. Urteetako lanaren ondoren, ulertzekoa da noraezean sentitzea bizitzako etapa berri honi aurre egiterako momentuan.

+60 proiektuaren helburu nagusia adinekoak prestatzea da, lan-aldiaren ondoren beren bizitzako etapa berri bat osotasunez bizitzeko, eta hori lortzeko beharrezkoak diren tresnak edukitzeko. Erabili den ikuspegiak bizitza betearen kontzeptua du ardatz; kontzeptu horren helburua da hazkunde pertsonala bultzatzea eta erabilera sozial eta komunitarioko jardueretan parte hartzea sustatzea.

Proiektua hainbat gaikuntza-moduluren bidez gauzatu da, eta bizi-etapa berri horretarako trantsizioarekin lotutako hainbat alderdi jorratu dituzte. Modulu bakoitzak tailer interaktiboak izan ditu, eta, horietan, azalpen teorikoak, banakako eta taldeko jarduerak eta gaitasunak garatzeko joko-dinamika serioak konbinatu dira. Parte-hartzaileek bizitza betea eta egokia izateko beharrezkoak diren trebetasunak eta ezagutzak eskuratu ahal izan dituzte.

Parte-hartzaileek Carlos Gutiérrezen (SE-COT), Xabier Garagorriren (Helduak Adi!), Mónica Bustoren (+55) eta Nerea Llantadaren (Busturialdeko Gizarte-Zerbitzuen Mankomunitatea) azalpen teorikoak entzuteko aukera izan dute.

Laburbilduz, Gernikan azaroaren 8tik 29ra egin diren lau tailerretan landu dena:

1. Norberaren esperientziatik, bizi-etapa berria eta haren trantsizioak ulertzea.
2. Bizitza osoko ereduaren ahuleziak eta indarguneak aztertzea, eguneroko bizitzan ezartzeko praktika errealaren ikuspegitik.
3. Bizitza osoko proiektu bat komunitatearen laguntzarekin ezartzeko gakoak aztertzea.
4. Tokiko baliabideak ezagutzea eta Gizarte-politikek eta -zerbitzuek bizi-eredu betea bultzatzen funtsezkoak diren ekintzak gomendatzea. ■





Busturia bere auzoak dira. **Axpe**, landatarra eta hiritarra, lasaia eta bizitegikoa, estuarioaren ertzean eta artadi kantauriarak besarkatua, Andra Mari eleiza monumentalak buru daukon ondare aberatsa-gaz. Natura eta ondarearen konbinazio perfektua. Ez galdu udako etxe handien bilduma bitxia, arkitektura desbardinakaz. Horreen artean, Busturiko tipologia da nagusi, lau isurkiko teilatuak eta leiho luzekoak. **Altamira**, bukolikoa eta berezia, atsegina eta zalapartatsua, bere kontrasteak bide, etxe eta lorategien artean batzen dira, herriari izaera emoten deitsoen mahats-parra tipikoetatik igarotzen diranak. Bere kultur giroa auzoko plazan batzen da, frontoiaren eta San Migel Goiaingeruaren eleiza bikainaren inguruan. Hemen dozu Txirapozu jauregia, enigmatikoa, arkitektura berezikoa, neoklasikoaren eta barrokoaren artekoa. **Abiña** auzoak, itsasoparean, estuarioa laztantzen dau, inguru idiliko honetan, San Antonio hondartza bereziak begirada guztiak hartzen dauz. Itsasbeheran, San-



San Kristobaleko hareatza

Busturia, kontrasteak patuz

Gatxa da gune bakar batean natura, kultura, aniztasuna, ondarea, paisaia, landatartasuna eta zerbitzuak, itsasoa eta mendia, tradizioa eta giro ona bateratzea. Ekuazio apetatso honen soluzinoa Busturian dago.

Busturiako bideak okreak, urdinak eta hainbat eta hainbat berde-tonalitate nahastent dabezen paisaietatik igarotzen dira, eta horreek aberastu, estresa kendu eta sentsazioak pizten dabez. Auzoen izaera kontraste aberatsen amalgama bat da. Bere aberastasun naturalak eta ondare balioak definitzen dabe bere nortasuna.

Udalerrri zahar eta erakargarri honek, mendez mende, bere bisitariak liluratu dauz, mendi eta itsasoko paisaia bikainengatik eta ondo zaindutako auzoen nortasun abegikorragatik, bere bidezidor zahar eta ezkutuetatik ibiliz aurkitzeak merezi daben hamaika txokoekaz.



Ekoetxea (Madariaga Dorrea)

dindere irla enblematikoak hareatzagaz bat egiten dau, eta agerian ixten dau artadi kantauriarraren baso trinkoa. BBK Klima abenturaren egungo egoitza dan udalekuen eraikinaren silueta erromantikoak historia, berezitasuna eta erresilientzia eskaintzen deitso auzo honi. **Paresi**, landa-inspirazioa pausu bakoitzean, leku lasaia, mendi magalen artean erretzen diran baserriekaz, Sollubeko gailurreraino. Bere naturaren artean paseatzeak espiritua erakarri eta elikatzen dau. Elurretako Andra Mariaren ermita zaharra da landagune honen erdigunea. **San Bartolome**, natura eta landatartasuna, zuzen-zuzeneko maitasuna begiratu batean. Zelai leunen, larre, mendi, baserrien eta padura-horizontearen arteko idilioa. San Bartolome ermitak eta harritzko mahats-parrek babestutako bideek paisaiaren sakontasuna areagotzen dabe. Auzo horretan dago Ekoetxea, Madariaga Dorre historikoan. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako biodibertsidadearen balioan sakontzeko interpretazio-gune handia da. **San Kristobal** auzo dinamiko eta hiritarra da, padurara hareatza zabal eta bitxi batetik hurbiltzen dana. Bere gune urita-

rrak bere iragan industrialaren kutsua gordetzen dau oindino. Ermitak auzoari izena emoten deitso, eta bere hazkuntzaren artean murgilduta dago.

Busturiako kultura-, natura-, historia-, etnografia-, landa- eta hiri-ondare guztiak, bertako tradizioek, oroimen historikoak, biodibertsidadeak... eta tokiko gastronomia aberatsak Busturia izaera jasangarriko turismorako helmuga ezin hobea egiten dabe. Bidaiariek herri bizi eta atsegina aurkituko dabe Busturian. **UM**

LUR

Uribarren

TONTORRETA KO PATROIA

Premonitoriotzat har daitekeen izena-gaz, Lur Uribarren elantxobetarrak emon eban jauzia arraunetik mendiko botetara. Ziabogak zortzi milako igoera hotzengaitik aldatu ebezan, eta traineruetako patroizetatik goi mendiko gidari izatera pasauzan. Elantxobe eta Nepal, besteak beste, uztartzen dauz, eta herrialde horreek eza-gutzeko esperientzia *"bizitzaren benetako masterra"* da berarentzat.



Makalutik Khumbura espedizinoa **Argazkia:** Lur Uribarren

LUR URIBARREN

Goi-mendiko gidari elantxobetarra

Elantxobetarra izanda zeure ingurune naturala ura izan da umetatik, zelan emon zendun saltua mendietara?

Elantxoben ura ikusten da, baina mendia be badaukogu. Ogoñon sartuta egon naz txikitatik eta ahal dodan bakoitzean bertara noa. Aste honetan, adibidez, birritan egon naz. Ogoñon, mendian zagoz ta itsasoa ikusten dozu, leku espeziala da. Dana dauko. Gainera, ama durangaldekoa da ta beti euki dogu Urkiola aldera joateko joera. Mendia beti izan da niretzako gus-tora eta trankil egoteko lekua, ta behar dodan lekua. Itsasoari dagokionez, familia arrantzalea daukot, baina nik egia esan ez dot euki afizinoa arrantzan joateko. Bai oster, Elantxoben txikitatik euki dogunez Arraun Alkartea, oso gaztetik hasi nintzan Elantxobeko Arraun alkartean, 9 urte-gaz. Gero euki neban suertea eta goi mailako talde batek fitxau eusten 16 urte-gaz, Bermeo-Urdaibai. Hor hasi nintzan arraune serioago hartzen eta aukerea hori aprobetxatzen. Itsasoa niretzako izan da leku bat lehiatzeko. Itsasoak be bere gauza dauko. Trankil egoteko beste leku bat da. Traineruak eta itsasoak emon deustena, mendian be bai horrek baloreak erabiltzen dodaz.

Lur, zure izena zure ibilbidearen bilakarearen premonitorioa da, orain mendiko gidari zarela, baina ez dozu arrauna faltan botaten?

Egia esan, amak egon zan pentsatzen neskea izango banintzan Ur izena ipintzen. Mutila irten nintzan eta Lur izena jarri eusteen. Itsasotik botaten dot falta lehia. Gaur egun telebistan ikusten dodaz estropadak eta monoa sartzen jat. Baina ez dodana botaten faltan da diziplina gogorra, batez be gosea. Bestela, aurton Elantxobegaz egin dot estropada bat. Patroi faltaz egon ziran eta herrikoek deitu deusteen ea ahalko baneban entrenamendu batzuk egin eta estropada bat egin. Animau nintzan eta ondo pasa neban. Askok disfratau neban, bakarrik aste-buru bat izan zan. Herriko kolorea defendidutea beti da polita.

Mendiak asko emoten dost. Neure burua topau dot bertan

Ze zerikusi dauko traineru bateko patroia izateak goi-mendiko gidari izateagaz?

Traineru baten zu zara gidaria eta jakin behar dozu 13 pertsona daukozuzela barruan. Jakin behar dozuz danak ondo eramaten, danak lasai edukitzen..euren %150a atara. Eta hor zuk kriston ardura daukozu ta diziplina. Ze tentzinoa egoten da, maniobra bat denboraz kanpo egiten badozu beste traineruak joan jatzuz. Errefleju asko euki behar dira. Ta orain mendian antzeko gauza bat da jendeagaz. Euki behar dozu segurtasuneko terrenoa ondo zainduta, ondo estudiauta haizeak, meteoak, eguraldia...itsasoan modura. Traineruetan, ze itsaso datorren jakin behar dozu ze eritmo botako dozun erabakitze-ko, ta mendian oso antzekoa da. Ondo irakurri behar dozu ze eguraldi datorren eta jendeagaz zelan tratau...oso psikologikoa da. Jendeagaz euki behar dan tratuan arraunek asko emon dost.

Bertigorik sentitzen al dozu itsaso edo mendia galdera topikoaren aurrean?

Bertigoa ez, errespetoa bai. Naturako bi leku dira eta guk horrek ezin doguz kontrolau. Hor dago erronka. Itsasoan ibiltzen jakitzeko asko ezagutu behar dozu eta mendian be bai. Gauza bien artean aukeratzekotan errespetuagatik igual mendia aukeratuko neban. Aita izan da arrantzalea eta aitak beti esaten dosten: itsasoa beti azkena. Itsasoa gogorra da eta Elantxobe baten familia guztiek dauke baten bat itsasoan ibilitakoa eta entzuten dozuz

euren itsasoko egoerak. Mendian be bardina da baina nik uste dot mendian gaur egun errezagoa dala egoera kontrolatzea itsasoan baino. Oso argi daukot mendiak emoten dostena orain topa dodala, neure burua topau dot mendian eta asko emoten deust. Mendiak emoten deust nire bizia berrantolatze-ko denbora, da leku bat behar dodana. Gorputzak eta buruak eskatu egiten deust. Mendira lan egiten noanean, disfrutatzen nago baina beste era batera, nago jendea zaintzen eta jendea gidatzen.

Zelan hartzen dauz zure jaioterriak zure bizi-aldaketa zorrotza eta mendiarekiko grina?

Askok esaten dabe: *"orain mendian?...hobeto zagoz hemen"*. Beste askok ulertzen dabe. Elantxoben mendizale asko dagoz, jubiladuak eta asko ibilitakoak. Adibidez, Angel Mari Arego erreferentea da. Angel Mari etorri da nigaz Marruekosera, beren amets bat zan 4000ko bat egitea. Eta egin dau, birritan etorri da. Nik pentsatzen dot askok ez dabela ulertzen han daukoguzen egoerak, ze ez da hemengo bezalako mendi bat igotzea. Da mendia, gehi hango kulturea... desbardina da.

Zer da Himalaia zuretzako?

Himalala niretzako da, nire bigarren etxea. Bai kulturalki bai mendi gailan nik uste dot edozein mendizaleentzako dala *Champions League* edo mundialeko mendiak. 8000eko mendirik gehienak bertan

>>>

dagoz, Nepalen. Horrek katedralak ikusten dozuzenean lehenengo biderrez, barrua mugitzen deutsu eta gura dozu bertara bueltau. Eta aukera badaukozu eskaletako horrelako mendi bat, hori beste mundu bat da. Kulturalki asko deitzen dauen herrialde bat da. Ezagutu dodazen bailarak, adibidez, Makaluko bailara oso pobrea da. Indigena moduan bizi dira.

Ze loturak daukozuz hango herrialdeekaz?

Nik babesean hartu neban umetxu bat orain 3 urte. Lakpa du izena. Sherpa txiki bat da. Mendian dagoz zarama daramatenak eta gero eskaladoreak, baina sherpak dira Makalu bailarako indigenak. Zergaitik diran sherpak mendian dagozen eskaltzailerik onenak? Euren bailara oso gogorra da bizitzeko, oso maldatsua da. Monzoien hileetan kriston barrankoak sortzen dira, negu gogorrek dira. Kriston desnibelak daukee eurek mugiduteko eta ohituta dagoz txikitatik pisuekaz garraiatzeko. Han ez daukee argirik, orain hasi da argia heltzen, baina ez daukee ez kotxerik ez ezer. Azkenean eskarmentu handikoak dira eta eurekin mendian ibiltzea ta sartu 8000ekoetan edo leku teknikoetan, bermea da. Makalun jada hiru alditan egon naz. Han ezagutu neban umetxoa, nire lagun Mingma sherparen etxean egon zan. Nik uste neban bere familiakoa zala baina hortik lau egunetara kontau deusten historia Mingmak. Umeak ez eban eukin ama bertan bailaran, aita alkoholagaz galdute, eta nik hartu neban umearen kargu.

Zelan izan zan bide hori?

Lehenengoa izan zan edukazinoa emon eta eskolara joaten hastea. Hasi da eskolan eta ingelesa hasi da ikasten. Orain Katmandura bajatu deutsagu. Bere aitak emon eutson paliza bat amari eta bajatu ebeen urgentzietara operaten Katmanduko ospitalera eta beren amaren irteera hori izan zan. Ospitalera joan baina ez zan bueltau. Lakpak gura eban bajatu Katmandura eta hor egon giñan estudianten zelan bajatu. Berantzako bizi aldaketa totala izango zalako. Honek ez eban jakin zer zan telebista bat ezta kotxe bat, ez farola bat, ez ezer... Zazpi urtegaz bajatu deutsagun. Orain jada hamarrerako dago. Katmandura noan bakoitzean beragaz egoten naz, eskalaten joaten gara batera rokodromora...Berak be gura dau gidari

izan. Dana kopiaetzen deust...polita da. Ume honek zelako bizi gogorra euki dauen ikusita, orain zelan dagoen ikustegaz super pozik gagoz etxeakoak.

Solidaridadea mendiari berez lotutako balioa da. Zure kasuan praktikara eramaten dozu, nondik sortzen da "benetako izenak" proiektuaren ideia?

Orain bi urte Ibai Etxezarraga etorri zan Nepalera trekking bat egiten eta trekking-a bukatzean berak gura izan eban ostera be bueltau Nepalera 6000eko bat egiten baina baita be gura eban proiektu solidario bat egin. Berak asmau eban proiektu solidarioa liburu baten bitartez egitea. Proiektuan Euskal Herria eta Nepal batu genduzan liburu baten. Liburua

Mendia beti izan da niretzako gustora eta trankil egoteko lekua, ta behar dodan lekua

dago euskaraz eta Nepaleko hizkuntzaz. Liburuan erakusten da Euskal Herrian zelan bizi garen, geure produktuak zeintzuk diran, hemengo baserriak, bertoko animaliak...eta hangoekaz konparatzen da. Liburuan lagundu deuskun Zuku Maiak, Gipuzkoan bizi dan nepaldar bat. Berak lagundu deusku hizkuntzako gauza batzuk itzultzen, ta hango eskolekaz bat egiten. Eta gero daukogu han Nepaldala fundazinoko Miren Beroitz, Hondarribiko neska



Lur eta Lakpa, bere besoetakoa, rokodromoan. **Argazkia:** Lur Uribarren



Ama Dablameko (6.812m) tontorrean, 2023ko azaroaren 12an. **Argazkia:** Lur Uribarren

Trainerueta ze itsaso datorren jakin behar dozu ze erritmo botako dozun erabakitzeke, ta mendian oso antzekoa da

bat zazpi urte han bizitzen dagoena. Egin doguna izan da komunikazinoa Nepaladalagaz fundazinoagaz. Joan giñan, aurkeztu deutsagun liburua eta hango umeek fli-pau egin dabe gure bizimoduagaz. Gainera gauza askotan harremana daukogu eurekaz. Adibidez, ama berba, han be ama da. Urtarrilak 31an izango da liburuaren aurkezpena Euskal Herrian. Orain aleak hasiko gara saltzen. Web orrialde bat

egongo da. Hor lortzen dan diru parte bat joango da Nepalera, Nepaldalari laguntzeko.

Ze beste proiektu solidariotan egon zara sartuta?

Egin neban lan be bai SOS Himalaintzako orain bi urte. Joan nintzan beste sherpaategaz SOS Himalaiak gaur

egunerarte egin dauen lana egunerazten. Joan giñan eskolatik eskolara zenbat ume dauzen ikusten, etabar, aztertze orokor bat egiten.

Solidaridadeko baloreak mendian eta itsasoan ikusitakoak eta ikasitakoak dira, ez?

Nepalen ikusi neban lehenengo gauza izan zan gu goazela kriston infrastrukturagaz. Eurek ez daukee ezer ta eurek emoten deutsue dana. Hori da ikusi eta ikasi nabena. Errege Magoak bezala goaz eta eurek emoten deutsue kristolako ejenplua. Eurek ez daukee ezer eta daukeen gitxi hori emoten deutsue. Ta pozik bizi dira. Nik han pasetako denbora guztiak asko emon dost. Bizitzako master bat da horrelako herrialdeak ezagututea. Horrek baloreak buruan geratzen jatzuz eta sentidu egiten dozuz.

>>>



Imja Tse espedizinoa 2023an. **Argazkia:** Lur Uribarren

Horregaitik aukeratu zendun zuk be bai goi mailako mendietako gidaria izatea? Berba egiguzu Lurbideri buruz, beti buruan izan dozun zerbait al da?

Bai trekking-a egiteko bidaia antolatzen dodaz Euskal Herrian, Marruekos-en, Nepal-en..., Islandiara hasiko naz joaten, Pakistanera be bai... Ni hasten naz bidaia erdi antolatzen, ikusten dodaz ze fetxatan ze bidaia izan leiken egokiena joateko, eta hasten naz antolatzen. Jentea animatzen bada bidaia aurrera doa.

Himalaia nire bigarren etxea da. Edozein mendizaleentzako da Champions League bezalakoa

Zein izan zan zure bataioa goi-mendian?

Alex Txikonegaz izan zan. Hiru espedizino egin dodaz beragaz. Kurtsoko praktikak beragaz egiteko aukera emon eustan. Ama Dablameko kanpo basera ta gero Everesteko kanpo basera, 32 pertsonako trekking bat gidatzen. Ez zan izan *trekking*ik errezena hasteko. Oso epoka gogorrean joan giñan. Gainera proiektu bat eroan genduan tartean, pelikula bat graba zan, hiru gazte ezintasun euki ebezenak etorri ziran taldean...erronka gogorra izan zan. 32 pertsona 3500etik gora beti dago batenbat txarto dabilena...asko emon eustan ikasteko. Amets bat bete neban eta oso argi ikusi neban zein izango zan nere bidea. Treckinga bukatu eta emon eustan aukerea eskalateko Ama Dablam neguan. Hori izan zan kristona. Ez gendun tontorra egin baina argi euki neban hori mendia eskalako nebala bai edo bai.

Eta azkenean lortu dozu Ama Dablam eskalatzea, ezta?

Bai, orain heldu da tontorra..Nire azkeneko lorpena hori izan da, Ama Dablam. Eskala dot Jorge Goetxeagaz, niretzako erreferente bat dana. Beragaz eskalatea izan da beste amets bat. Pentsa baino arinago eskalau dogu. Bi egunetan eskalau genduan. Erronka potentia ipini genduan mahai gainea eta bien artean egin genduan. Kanpo basetik lehenengo kanpalekura egin genduan, bertan 6 ordu deskantsau, itxi genduan uraren depositua eta janaria bertan, eta bota genduan tontorrerarte segiduan. Bigarren eta hirugarren kanpalekuak salto egun genduzan, ze jente asko egon zan ta fuerte ikusten giñan. Eskalaten erritmo oso ona euki genduan. Dana joaten zan oso erre. Bakarrik frontalagaz ikusten giñan gabaz

ta atzamarragaz ondo goazela markaten genduan. Kriston pozaz egin genduan tontorra. Oso ondo sentidu nintzan. Arazo bat euki genduan tontorrean, italiar bat topa genduan burua joanda, erropak eta kentzen egon zan, dardarka hipotermia-gaz.. Jorge medikua da eta berak medikamendua emon eutson. 3. kanpalekura eramán genduan eta erreskatau eben helikopteroz. Hori sustoa kenduta dana joan zan ondo, ta ametsa beteta!

Zelan prestatzen zara fisikoki eta mentalki?

Gogorrean mentalki da. 8000eko espedizinoetan asko lantzen dau buruak. Zagoz inoren lurrean, zagoz arriskuan denbora guztian. Ahal da etorri edur-jausi bat edozein momentutan, etxetik urrun zagoz, etxean gauza asko ixten dozuz...ta ahaljatzu burua hasi martxan eta ez dozu funtzionatzen. Horrek egoera guztiak pasata, ikasi egiten dozu. Arazo txiki bat euki ezker, burua ez badaukozu ehuneko ehunetan ezin dozu eskalau nahiz eta fisikoki ondo egon. Akatz txiki bat asko da eta ahal dozu zeure bizia bertan itxi. Fisikoki nik entrenau naturan egiten dot. Ogoño daukogu entrenateko lekuri onena, aldatsak Elantxoben sobran, Ereñon be asko entrenaten dot...gero beste faktorea da han aguantau, harek hotzak...sufriendu kapazidadea eukin egin behar da.

Atlas, Everest, *Trekking*-a Euskadin... zer dauke komun hauek?

Azkenean mendia mendia da. Jente askok esaten dau: *ze makina, Himalaian mendira!*...ez da makina, nik gehien bat suertudun bat ikusten naz, ahal nazelako hara joan lanean eta oso garestia da hara joatea. Baina nik lanean irabazten dodana han itxten dot. Ez daukazu zertan izan behar kriston mendizalea joateko Himalaiara. Nik igual gehiago baloratzen dot hemengo mendietan dabilen jentea eta ondo kontrolatzen dauena mendia. Edozein txokotan dakiena ibiltzen. Ez daukazu zertan joan beharrik kanpora hemen kontrolatzen badozu ondo. Hemen Euskal Herrian daukoguna ez daukogu han eta han dagoena ez daukogu hemen. Hemengo mendietan arbolak dagoz, landa berdeak, kobazuloak, errekek... eta han ez dagoz. Mendi bakoitzak bere xarma dauko.



Makalutik Khumbura espedizinoa **Argazkia:** Lur Uribarren

Euskadira bueltatzean, tontorren batera igotzea gustatzen jatzu?

Amboto beti. Sofan botata egotea ez da neurea. Korrikan urten, tentzinoa soltau behar dot. Gure lana ez da bakarrik mendira joan, etxean ofizianako ordu asko dira.

Hurrengo ze proiektu dozu buruan?

Orain denbora asko pasau dot Nepal-en, bi hile eta zeozer. Badaukadaz hor aukerak eta eskaintzak gauzak egiteko baina ez da erraza esatea: *egingo dot!*. Ekonomikoki garestiak dira, nik ez daukot babesik edo laguntzarik,

eta ez da erreza, baina gustako jautzen. Laster pentsako dot zeozer, ipiniko dot objetibo bat ea nora ahal nazen heldu... beti dago zeozer. **UM**

Nepal-en eurek ez daukee ezer eta daukeen gitxi hori emoten deusue. Bizitzako master bat da horrelako herrialdeak ezagututea

Akelarreak eta Urdaibai

sorginen lekuak

Eperlanda, Petralanda, Sorgintoki, edo Sorginzilo... Urdaibain sorginei buruz berba egitera garamatzaten toponimoak dira. Ahozko tradizioan oinarritutako herri-sinismena, benetako per-sekuzinoak eragin eta leku horreek misterioz betetzen dabezen kondairak sorrarazi ebazala.

Akelarre sorgin eta aztuen gaueko batzar edo bile-ra lez definitzen da. Dea-bruak, normalean, akerraren irudian esku hartzen dau hauetan, bere praktika magiko edo superstiziosoetarako. Euskarazko etimologiari erreparatzen badeutsagu, akelarre toponimo bat da benetan. Akerra

Busturialdean sorginkeria-praktikengaitik 1616an zabaldutako bi prozesu dagoz

eta larrea da, berbaz berba "akerraren zelaia". Sorginen batzarrekaz lotutako toponimo horreek Urdaibain errepikau, nahastu eta marraztu egiten dira geure paisaian. *Akerlanda* Gautegiz Arteagako paraje bat da, eta bertan inguruko sorginak batzen zirala esaten da. Morgan, *Sorginzilo* izeneko leku bat dago, *Etxabastxuko-landa* Muruetan, *Dantzaleku* Ibarrangelun, *On-dartzagane* Mundakan, *Santa Kruzko Landa*, *Sumarratako Landa* edo *Albonigako* (Sollube) zelaia Bermeon. Nabarnizen, herri-jakituria *Arbiñe* kobazuloan sorginak bizi zirala ziurtatzen eban. Muxikan *Sorgintoki* eta hemen be *Eperlanda* aurkitzen dogu, hortxe sorgin batzarrak egiten omen ziran, Aita Barandiaranek bere lan bilduman (*Viaje al Akelarre*) jasotzen dauen bezala. Busturiako *Larrago* eta *Eperrena* baserrietatik gertu izen bereko landa bat be badago, *Eperlanda*. Toponimo hau oso ohikoa da geure inguruan sorginek batzarrak egiten ebezen larreei izena emoteko (Eusko-Folklore, 1922ko urria).

Sorginkeria-prozesuei buruzko aktei erreparatuta, badakigu Urdaibaiko akelarreak Euskal Herriko eta Europako gainerako tokietako akelarreen antzekoak zirala. Batez be astelehen, eguezten eta barikutan ospatzen ziran, Zugarramurdiko ustezko sorginak epaitu ebezen Logroñoko Fede Autoaren arabera (1610). Kortezubin barikuetan bakarrik ospatzen zirala uste da, gauerditik oilarraren kantura bitartean, eta Bermeon, berriz, barikuetan ez zirala atzazalak moztu behar uste zan, sorgin-eguna zalako.

BENETAN,

SORGINIK IZAN AL ZAN URDAIBAIN?

Lekukotasun asko, kondaira gehiago, leku enigmatiko hauetan susmatzen dan misteriozko atmosferak biziartziak. Sorgintzat hartzen ziran gizartetik kanpo bizi ziran emakumeak, senarrik bako adineko andrazkoak, alargunak, seme-alaba bastardoak, akats fisikoak eukazan pertsonak, umezurtzak... sorginak edo aztuak izateagatik akusatutako gizonak, emakume gazteak edo neskatoak.

Busturialdean, Sukarrietako, Ereñoko, Gautegiz Arteagako, Ibarrangeluko eta Bermeoko elizateetan sorginkeria-praktikengaitik zabaldutako bi prozesu dagoz 1616an. Akusazinoak, askotan, alkateek egiten ebezen, bai beren ekimenez, bai bizilagunen salaketengaitik (behar-tuak edo bildur eta enbi-diengaitik). Nahikoa zan zurrumurru soil bat edo ume batzuen salaketa inozentea.

Izan be, inkisizinoak emakumeak sorginez salatzearen ohoreak eraman ebazan arren, egia esan, historialariek erakusten dabenez, inkisizinoak ez ebazan sorginak jazarri, ez ebazalako sorginen benetako existentzia sinisten. Frantziako era-

ginak (Pierre Lancre Euskal Herriko iparraldera 160gan bidaiatu eban inkisidore frantses bat izan zan eta "*Tratado de brujeria vasca*" utzi eban idatzita) sortu ebazan prozesu horrek Euskadin. Are gehiago, Inkisizino Gorenaren Kontseilu Nagusia izan zan prozesuak eta epaiak geldiarazi ebazan bakarra, hemen gainerrako auzitegien gaineko ahalmena eukan eta. Funtsezkoa izan zan Alonso Salazar y Frias elizgizonaren figura, "*aztu eta sorginik ez zala izan horri buruz berba egin zan arte*" defendatzen ebana, histeria kolektiboa, fanatismoa eta sorginkeriaz akusatzen ebezenen ezjakintasuna aipatuz. Justizia zibilak zabaldutako prozesuak geldiaraztea lortu eban. Horreen artean, Busturialdeko prozesuak, emakumeak eta gizonak aske utzita, baita "*hirurogeita hamar edo laurogei mutiko eta neskato baino gehiago, guztiak hamahiru urtetik beherakoak*" be, kasu honetan Bermeoko autoak jasotzen dauen bezala. **UM**



P E R R A T O K I A K

landa-bizitzaren *aztarnak*

Garai batean, ez hain urrun, zaldiak, idiak, mandoak, as-toak eta behiak ziran ohiko garraiobideak landa-eremuetan, eta nekazaritzan eta abeltzaintzan funtsezko laguntzaileak ziran. Garai hartan, perratokiek funtzio garrantzitsua eukeen: animaliei eustea, erremontariak hankak eta apatxak babestu ahal izateko. Gaur egun, instalazino sinple eta aldi berean konplejua haiek oroitzen geratu dira.

Gure iragan hurbileko aztarnak dira, Busturialdea-Urdaibai eskualdeko abeltzaintza- eta nekazaritza-tradizioaren ezaugarri eta ondare etnografikoaren altxor txikiak. Perratokiak beste garai, erabilera eta lanbide batzuen lekuko bihurtu dira, garai hartan Urdaibai-ko landa-paisaiaren parte ziralako. Perratzeko erabiltzen ziran, Erdi Arotik hasi eta XX. mendera arte, hau da, animalien apatxetan perrak jartzeko. Itxura xumea izan arren, baita hauskorra be, pisu handiko animaliak geldiaraztea lortzen eben, animalari gehiegi gustatzen ez jakon zerregin batean.

Geure eskualdean, oindino, landa-auzoetan, perratoki batzuk aurki daitezke sakabanatuta. Nabarnizen, perratoki bat aurkitzen dogu Ikazuriaga baserriari lotuta. Jabeak Juan Pedro eta Eufasia neba-arrebak dira, eta gogoratzen dabe zelan euren aitak, Vicente Ikazuriagak baserriko lanean aritzen ziran behiak perratzten ebezan. *"Nire aitak perratokia erabili eban 70eko hamarkadaren amaiera arte. Dana berak egiten eban, behien perrak aldatzen ebezan eta zauriak olio eta sulfatoz be sendatzen eutseezan. Perratokia behiekaz bakarrik erabiltzen eben, idiak ez genduzalako eta zaldiekaz ez ebalako erabiltzen"* gogoratzen dabe Juan Pedrok eta Eufasiak.

Bere perratokia ez zan auzoko bakarra, Ikazurieta auzoko bost baserrietan be baegoan tresna hau, eta herrian, Nabarnizen, perratzaile bat be baegoan, zeinari edozein bizilagunek eska leikiozan zerbitzua. *"Geurea gure aitonak egin eban, 100 urte baino gehiago izango dauz eta dana*

egurrezkoa da, mihizatuta dago eta torloju barik". Duela 40 urte baino gehiago ez da erabili, eta baserrian hainbat erreforma egin badira be, jabeek, nostalgiagaz, ez dabe kendu gura. Bizimodu baten oroitzen familarra da.

Ibarrurin (Muxika) auzo-perratoki bat dago, 60ko hamarkadaren amaieran herrietarrek eurek eraikia. Zugaztietako perratzaile barik geratu ziranean, Bilbora joan zalako, Mendatako perratzailearen zerbitzuak eskatu ondoren, perratokia egin eben, haren aginduei jarraituaz. Pe-



Ikazuriaga baserriko perratokia, Nabarniz.


rerratokia egurrezko egitura bat da, lau haga bertikalez osatua. Haga horreek laukizuzen bat osatzen dabe, habez alkatua, eta horreetatik zintzilik petral sistema bat dago, animalia lurretik eusten eta altxatzen dauena. Abereari be uztarri batez eusten jakon burua. Animalia geldi egoanean, perratzaileak, arrisku barik, hatz edo apatxetan egiten eban bere lana.

Landa-eremuan, orain dala mende erdi arte, etxeko animaliak ezinbestekoak ziran familien ekonomiaren garapenean, nekazaritzako, garraioko edo etxeko lanak egiteko. Behiak baserri baten aberastasunaren sinbolotzat hartzen zan, eta horregaitik animalien zaintza funtsezkoa zan. Beraz, perratokiak garrantzitsuak ziran. Perratzeko ogibidearen sorrera iraganean galtzen da, eta eskakizunen edota animaliek egi-

ten ebezen esfortzura egokitzen zan. Perratzaileek, artisaubaliotsuak, animalien "zapatak" jarri eta zaintzen ebezen, hauek lurrarekiko marruskaduragatik gastau eta malformazioak eukiten ebezelako. Ez hori bakarrik, beste lan batzuk be egiten ebezan, albaitariena esaterako, zauriak eta infekzioak sendatu eta adarrak moztea, besteak bete.

Gaur egun, perratze-prozesua ia bardina da, baina perratzaileak baserri baten ibiltzen dira kamioiagaz eta perratoki mugikorrak. Probetan lehiatzen diran zaldiei eta idiei bakarrik jartzen jakez perrak. **UM**

"Gure aitonak egin eban, 100 urte baino gehiago izango dauz eta dana egurrezkoa da"



BUSTURIALDEAK

baso-paisaia aldatzen dau

Zer da Basonet?

• Basonet Euskadiko baso-kudeaketa jasangarriari lotutako baso-lursail iraunkorren sare zientifikoa da. 2001ean sortu zan, estadistika tradizionalek emon ezin ebezan adierazle batzuk kuantifikau behar ziralako. Hainbat helbururekaz sortu zan: baso-azaleren eta egur izakinen bilakaeraren, osasunaren, baso-sistemen biodibertsidadearen, lurzoruen emonkortasunaren, ezohiko kasuistikek eragindako kalteen, baso-espezieen urtaro-baldintzen azterketaren eta abarren jarraipena egitea. Basonet sareak Euskal Autonomia Erkidegoko baso-lurralde osoan banatutako baso-masetan kokatutako 430 partzela inguru daukoz. 2022an amaitu da Basonet sarearen hirugarren neurketa, 2001eko eta 2011ko hasierako neurketen ondoren. Lurzati horreetan, erdian metalezko x-fla bat dago lurperatuta. Zentro horretatik abiatuta, gehienez 25 m-ko erradioan kokatzen diran zuhaitzen diametroak eta altuerak neurtzen dira, eta horrela, zuhaitz horreek neurtu ziran aurreko aldiaz geroztik, egurraren bolumena, hilkortasuna eta hazkundea kalkula daitekez. Epe horri Basonet sarearen aldizkakotasuna esaten jake, eta 10 urtetan eza-

Pasa dan mendetik, Busturialdeko baso-landaketetan nagusi izan dan espeziea intsinis pinua izan da, eta da; halanda be, azken datuek joera aldatu dala adierazten dabe. Intsinis pinua da lurrazalean gehien jaisten ari dan espeziea, eta, nagusiki, eukalipto-landaketek eta hostozabal autoktonoen baso misto atlantikoek ordezkatzan dabe.

Historikoki gaztainondoek, haritzek eta arteek estaltzen ebezan gure basoak, baina XX. mendean, koniferoak eta, bereziki, intsinis pinua izan dira nagusi Busturialdeko baso-paisaian. Halanda be, erreferentzia lez 1996ko baso-mapa hartzen badogu, datuek adierazten dabe intsinis pinua dala, hain zuzen be, lurrazalean gehien jaisten ari dana. Radiata pinudiek 3.500 ha inguru galdu dabez Busturialdean. Kopuru hau handiagoa izan leiteke, 2023an 1.974 ha. moztu diralako, oindino basobarritu barik dagozenak.

Hostozabalen masak dira lekua irabazten ari diranak, batez be eukalipto sailak eta baso misto atlantikoak, hostozabal autoktonoen nahasketa. Datu horreek HAZI Fundazioko Basonet sareak berresten dauz, Busturialdeko lursailen laginketa baten bidez. *"Datuek paisaia izandako aldaketa izugarri hauek islatzen dabez. Barriri neurtutako 19 lursailetatik, 6 bakarrik aurkitu dira radiata pinudietan; beste 6, barriz, galdu dira moztu ondoren, 4 eukaliptokoak eta 3 bertako hostozabalen basoetakoak dira. Orain dala 20 urte, 2001ean lehen aldiz Basonet sarea neurtu zanean, radiata pinuko 11 lursail zenbatu ziran, eukaliptoko 4 eta hostozabalen basoetako 2"; nabarmentzen dabe Hazi Fundazioko baso-sailatik. Basonet sareko*

Intsinis pinua da, hain zuzen be, lurrazalean gehien jaisten ari dana

partzeletan be laginketak egiten dira, hau da, zangak zabaltzen dira baso-lurzorua- ren itxura ikusteko eta haren horizonteen (antzeko ezaugarriak daukozen geruzak) laginak hartzeko, laborategian aztertzeko. Horrela, azken hamarkadetan EAEko baso-lurzoruetan izaten ari diran aldaketak kuantifikau daitekez, eta lurzoruek zuhaitzen hazkundean daukeen garrantzia azter daiteke. Busturialdeko Basoneteko

AZALERA BUSTURIALDEAN (HEKTAREATAN)

ESPEZIEAK	1996 MAPA	2022 MAPA	URTEKO BATEZ BESTEKO GUZTIKOA (Ha)
<i>Pinus pinaster</i> Itsas pinua	1.187	547	-25
<i>Pinus radiata</i> Radiata pinua	11.994	8.471	-135
Beste koniferoak	83	484	+15
Konifero guztiak	11.994	8.471	-135
<i>Quercus ilex</i> Artea	1.614	1.665	+2
<i>Eucalyptus</i>	2.188	4.914	+105
Baso mistoa	1.081	2.380	+50
Beste hostozabalak	295	958	+25
Hostozabal guztiak	5.178	9.916	+182
Zuhaitz guztiak	18.442	19.418	+37

lursailetan bildutako datuek erakusten dabenez, lurzoruen azidotasuna txikia da, eta lurzoruen emonkortasuna hobetu egin da azken 20 urteetan; izan be, batez besteko 5,52ko pH batetik 5,72 beste batera pasau da azaleko horizontean.

Basogintza eta egurra sektoreak tradizio handia izan dau eta dauko Busturial-

dea-Urdaibain, eta nabarmentzekoa da jabe pribatuena dan baso-azalera handia. Eskualdeko intsinis pinuaren azaleraren % 95 jabetza partikularrekoa da, eta Bizkaia osoan % 82. **UM**



Intsinis pinuko plantazinoa.

Besigua geure kulturari, arrantzaleen familien ekonomiarri eta gure gastronomiarri lotutako arraina da. Belaunaldiz belaunaldi ugaria izan zan geure kostaldean, baina bere pixkanakako desagerpenak eta gastronomiarekiko gurtzak eskuratuezin bezain desiratu bihurtu dabe.

Besigua

Gabonetan?



Hitako artzapezak, XIV. mendean jada, bere *El libro del buen amor* liburuan arrantzaldi hau Urdaibaigaz lotzen eban: *"batailoientzako besiguak eta sardinzarrak eta Doña Kuaresma Bermeotik etorri ziran"*. Gure arrantzalekueetan izan eban ugaritasunak arrain honen gorakada ekarri eban, eta gastronomian ospetsu eta Gabonetako mahaietako izarra bihurtu eban. Beharbada zerikusirik izan eban bijilia egunetako zentsurak. Egun hoietan arraina afaldu behar zan eta besigua nagusi zan lonjetan. Urteko sasoirik onenean jaten zan, Santa Katalina (zemendiak 25) eta San Blas (zezeilak 3) artean, horrela islatzen dabe esaera zaharrek: *"San Antonen, besiguak piloka. San Blasen, besigua*

atzero. Santa Katalinan, besigua sukaldean". Mundakan kontau deuskuenez, *"Santa Katalina egunean Mundakan besigua jateko ohitura dago"*, eta herri-atso-titzetan be agertzen dira aipamenak. *"Santa Katalina noz? Garia eraitseko otz, besegueterako goiz"*. Besiguaren kostera erabakigarritzat jotzen eban beste garai

1983an lehen aldiz, besigu bat lebatza baino gehiago kostau zan. Ordutik, gora egiten jarraitzen dau

batean. Mundakako kofradiak arrantzarako xedapen bereziak ezarri ebezan be bere ordenantzetan.

Antxinan euskal portuek besigua gura beste harrapatzen eban arren kosta inguruko arrantzalekueetan, esaterako *Okarantza* Matxitxako lurmuturraren aurrean, *Kalabarri* Bermeon edo *Kalafaltso* Elantxobetik gertu, gaur egun gatxa da besigua harrapatzen ikustea leku hauetan. Arrantzaren eskasiak prezioaren igoera proportzionala ekarri eban. 1983an, historian lehen aldiz, besigu bat lebatza baino gehiago kostau zan, eta ordutik gora egiten jarraitzen dau. *Pagellus Cantabricus* euskal besigua ia desagertuta dago. Gaur kontsumitzen dogun besigu gehiena Tarifatik, Azoresetik edo Marokotik dator.

ZER DAKIGU ESPEZIE HONI BURUZ?

Burua mustur txato baten amaitzen da eta ahoa mukosa gorrixka batez estalita dauko. Doradaren lehengusua da, 20 eta 40 cm artekoa, baina kolore gorrixka dauko, urrezko distira eta sabel zurixka.

Besigua gaztea danean, pantxito esaten jako, eta danak arrak dira. Besiguak hermafroditak dira, proterandikoak, edo, bestela esanda, arrak dira helduarora iritsi arte. 12 cm neurtzerakoan begiak handitu egiten jakez, beren orban ilun bereizgarria ateratzen jake, gorriago bihurtzen dira eta hondora jaisten dira bizitzen. Orduan, gehienak eme bihurtzen dira, eta neguan, errun aurretik, arrautza eramaten dabe barruan. Bere haragia oso preziatua da,

zuria, oso sendoa eta kolagenon aberatsa, testura eta zapore bikainakoa.

Erosteko guraria izanezkero, zelan bereizten dogu besigu on bat? Esaerak dinoenez, *"gaixoa eta besigua begiz ezagutzen dira"*. Bere begiek distiratsuak eta gardenak izan behar dabe, sartuak, opakuak edo goibelak badaukoz, besigua ez da freskoa izango. Erreparatu be, bere orban baltz bereizgarria ez ote dan gehiegi argitu.

UM

ERREZETA

Besigua errea

OSAGAIK

- Besigua
- 3 berakatz-atal
- Ozpina
- Oliba-olio birjina estra
- Gatza
- Limoia

Ondo garbitu, eskamau, despiskau eta hainbat uretatik igaro ondoren, gatzitu eta denbora luzez uzten jako azpil batean. Parrilla txingarra biziaren gainean jarri, paper barri batez hagatxoak igurtziz, olio bustita, eta besigua gainean jartzen da. Ondo egin eta, aldi berean, txigortu baina ketu barik, noizean behin azpil batean buelta emonez. Zerbitzatu berakatz prijiduekaz olio bustita. Erre ondoren, olioagaz eta berakatz prijiduekaz eta ozpin-tanta batzuekaz kazola batean jartzen da, eta irakiten itxi pixka batean. Era berean, labe gogorrean erre daiteke, ebate batzuk emonez, eta bertan limoi-xerak sartuz.

"El Amparo"
Jatetxearen errezeta



Trantsizino Ekologikorako eta Erronka Demografiko-rako Ministerioak eta Bizkai-ko Foru Aldundiak sinatu-tako akordioaren arabera, foru-erakundeak 40 milioi euroko dirulaguntza jasoko dau, Urdaibaiko estua-rioaren inguruan garapen iraunkorreko jarduera be-reziak egiteko. Jarduera horreek Urdaibain Guggen-heim Bilbao Museoaren he-dapen etenaren funtsezko zati bat izango dira.



Urdaibaiko padurak



Murueta ontziola

INGURUMENA

proiektu garrantzitsua

LEHENERATZEKO

Guggenheim Urdaibai iritsi aurretik

Aurreikusitako inguru-men-jarduketei esker, paduretako 200.000m² eta industria-lurzoruko 60.000 m² berreskuratuko dira. Estatuko erakundeak eta Foru Aldundiak sinatutako hitzarmenak soilik ingurumen arloko jarduketei lotzen dau diruzko ekarpena; zehazki, 13 jarduketa dira guztira, eta horreen artean 3,5 km-ko bidegorria sortzea be sartzen da.

Gernika eta Murueta dira Urdaibaiko Museoaren egoitza barria hartuko daben udalerriak. Gernika-Lumon, Dalia fabrika zaharrari (1go jarduketa) dagozkion

21.186m²-ko lurzoruko kutsadura kentzea aurreikusten da, fabrikaren hondarrak botatzea eta uholde-arriskua zuzentzea barne. Aldundiak hiru urte daramatza kubertera zaharreko lurreen dagoen kutsadura identifikatzeko lanean, zundaketen bidez. Lan horreek, kutsadura identifikau dabe baita be fabrikaren zorupean doan akuiferoan. Lurzoruko kutsadura kentzeko-prozesua produktu "bioestimulatzaillekaz" egingo da 2024an eta 2025ean. Gernika-Lumon, planeatutako eraikinak lurren erdia baino gutxiago hartuko dau; beraz, gune berdeetarako 10.000m² inguru libre geratuko dira.

Murueta ontziolak kokatuta dagoen lurzatian 42.384m²-tan (2. jarduketa) lurzoruko kutsadura kentzea aurreikusten da, eta ontziolen ondoko muino batean metatutako dragatzeetatik datozen lurrak kenduko dira. Orain arte egindako azterketek erakusten dabenez, hondakinak goiko geruzan baino ez dira agertzen, baina datorren urtera arte ez dira jakingo behin betiko emaitzak. Muruetako egoitza barriak lurraren % 25 baino ez dau hartuko, eta 30.000m² inguru libre geratuko dira birnaturalizatzeke.

Guggenheim Urdaibaiko etorkizuneko eraikinek, bi egoitzen artean, 20.000 m² inguru hartuko dabez, garbituko dan 63.570 m²-ko industria-lurzorutik; beraz, proiektuaren barruan 40.000 m² baino gehiago libre geratuko dira, paisaian integratzeko. Bi lurzatiak berdeguneekaz eta lorategiekaz egokituko dira (4. jarduketa). Nabarmentzekoa da, era berean, bi eraikin barriek, bata Gernika-Lumon eta bestea Muruetan, zerikusi gutxi edo batere ez daukeela izango Bilboko Guggenheim Museoagaz, jasangarriak izango dirala eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ingurunera eta paisaiara egokituko dirala,

eta horreen diseinua ideien nazioarteko lehiaketa batetik atarako dala. Aurkezten diranek kontuan izan beharko dabe proiektuaren eremu osoan paisaian integratzea eta birnaturalizatzea, 5. jarduketari dagokiola.

Hitzarmena sinatzean, itsasadarreko fluxu naturala (3. jarduketa) lehengoratuko da, kaiaren zati bat atzeratzea; horrela, itsasadarri jatorrizko zabalera itzuliko jako,

eta 2.000 m² inguru berreskuratuko dira. Hitzarmena, jarduketa guztiekaz, Bizkaiko

Batzar Nagusietan berretsi da, eta MITECok ingurumen-jarduketarako emondako 40 milioi euroko exekuzio-kostua jasotzen dau, bai eta BFAk Urdaibain Guggenheim proiektua gauzatzeko beste jarduketa batzuk finantzatzeko beste 40 milioi bideratzeko

konpromisoa be. Ingurumen-jarduketek

>>>



Dalia enpresa (Gernika-Lumo)

sei urteko epea dauke, eta, ondoren, museoaren eraikin barriak eraikiko dira; beraz, hamar bat urte barru Guggenheim Urdaibaik ateak zabalduko dauzela aurrei-kusten da.

Mugikortasun jasan-garria hitzarmenaren zati garrantzitsu bat da. Jasotako 13 neurrien artean dagoz Murueta eta Dalia artean egoan bidegorria barritzea eta egokitzea (7. jarduke-ta.), BI-2235 errepi-dearen eta Muruetako ontziolaren arteko bi-degorri zati barri bat (8. jarduketa.), Forun eta Forutik Daliara doan bidegorri zati barriak (9. jarduketa.). Guztira, 3,5 km bidegorri bar-ri prestauko dira, bizikleten aparkalekuak sortu, bizikleta elektrikoak, lotutako insta-lazino elektrikoaren eta bizikletaren mu-

gikortasun jasangarriagaz lotutako beste jarduera batzuekatz batera (6. jarduketa.).

Beste jarduketetako bat oinezkoentzako beste bide bat egokitzea da, Muruetako ontziolara iristeko 400 m ingurukoa, eta lehendik dagoen tarteak egokitzea (10. jarduketa.). Kasu hone-tan, foru-iturrien ara-bera, aurreikusten da piboteen gainean pa-sabideak jartzea, itsa-soaren sarrera ahalbi-detzeko eta padurako 200.000 m² berresku-ratzeko, 28 futbol-ze-lairen baliokidea. Orain lehortuta dagoan espa-zio bat. Gainera, espezie

inbaditzaileak desagerrarazten lagunduko da. Neurri hauek osatzen dabez: 600 m in-guruko (11. jarduketa.) hargune elektrikoa lurperatzea Muruetan; konpentsazino eta zuzenketa neurriak eta ingurumen-az-terketak egitea, arlo horretan eskumena daukeen agintariek eskatutakoak (12. jar-

duketa.); eta Urdaibaiko inguruan garapen jasangarrirako beste jarduketa batzuk, "Urdaibaiko GBMren hedapen etena" proiektuan sartu ahal izango diranak (13. jarduketa.), esaterako, eraikinen karbo-no-isurketen neutraltasuna. **UM**

Proiektuaren barruan 40.000 m² baino gehiago libre geratuko dira, paisaia integratzeko

JANARIA EZ DA BOTATZEN

**Herritarrak, ostalaritza
eta merkataritza
elkarrekin, elikagaiak
alferrik ez galtzeko.**

zerodespilfarro.eus

↓ EZ ETXEAN



↑ EZ SALTOKIAN

Isabel Rodriguez Etxabe harategia (Vitoria-Gasteiz)



TOURDAIBAI

Urdaibaiko turismo jasangarrirako elkarte



**ETORKIZUNAK
BATZEN GAITU**
* Nos une el futuro



688 638 421
info@tourdaibai.com

Bizkaiko Txikien Osoko Bilkurak osasunerako eskubidea aldarrikatu dau

Bizkaiko 10 ikastetxetako 300 ikasle inguru izan dira Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Unicef Euskal Herriko Batzordeak antolatutako umeei buruzko osoko bilkura monografikoan. Umeen Eskubideen Egun Unibersalean (azaroaren 20an) ospatu da, eta 12 eta 14 urteko gazteek eta ordezkari politikoek dokumentu bat sinatu ebeen, ikasleek beraiek egina, arlo guztietatik osasunerako eskubidea aldarrikatzeko, bai osasun fisiko eta mentalean, bai osasun sozial eta ekonomikoan. Bizkaiko Txikien Osoko Bilkuraren seigarren edizinoa izan da, eta *"Emon ahotsa zure balioei"* proiektuaren barruan kokatzen da. Ikasleek ahots hori altxatu dabe, besteak beste, ikastetxeetan psikologo gehiago eta ludopatia eta pornografia bezalako mehatxuen aurrean babes handiagoa eskatzeko. **UM**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Golako, Mape eta Kanpantxuko emari minimoak aldatuko dauz

Emari ekologikoen jarraipena egin ondoren, BBUPren txostenak egokitzat jotzen dau Golako, Mape eta Kanpantxuko arroetan emari horreek behin-behinean aldatzea. Emari ekologikoa ekosistemek modu iraunkorrean mantentzen daben muga da, eta azken urteotan, hartutako neurrien ondoren, Busturialdeko horniduraren bermea hobetu egin da. Uraren Euskal Agentziak Golako eta Mape ibaien arroetan emaria kontrolatzeko sentsoreak jarriko dauz, eta Kanpantxun aforo sistematikoak egingo dauz, 2028-2033 Plan Hidrologikoaren etorkizuneko ikuskapenen behin betiko emari ekologikoak zehaztasunez birdefinitzea ahalbidetuko dauen informazio gehigarria batzeko. Busturialdeak ur-baliabideen erabilgarritasuna, ur-eskarien gogobetetzea eta emari ekologikoe-kiko errespetua uztartu behar dauz.

UM



Jon Enbeita, Lauaxeta Ohorezko Saria 2023, euskal kulturaren alde egingako ibilbideagaitik

Jon Enbeita bertsolari, idazle eta abeslari muxikarrak "Lauaxeta Ohorezko Saria" jaso dau, Bizkaian eta munduan euskara sustatu, zabaldu eta normalizatzeko egindako lanagaitik. Bertso bategaz eskertu eban Enbeitak Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahalduen Nagusiaren eskutik jasotako esker ona. Sarien hemeretzigarren edizinoa Euskararen Nazioarteko Egunaren barruan egin da (abenduak 3), kultur ondarea eta euskara indartzeko eta transmititzeko lanean ari diranei omenaldia eginez. Jon Enbeita bertsolari sendi baten hirugarren belaunaldia da. Balendin Enbeita ospetsuaren semea eta Kepa Enbeita "Urretxindorra"ren loba. Ohorezko Lauaxeta saria 2017an ezarri zan, euskara nazioartean sustatzen, zabaltzen eta prestigiatzen daben bizkaitarrak edo ondorengoak saritzeko. Oier Plaza gernikarrak be Lauaxeta saria jaso dau ikus-entzunezkoen kategorian, 'Memoria Lurperatuta-Memoria Enterrada' dokumentalagaitik. **UM**

Urdaibaiko 39 enpresa Turismo Jasangarriaren Europako Gutunera atxikituta dagoz

Turismo Jasangarriaren Europako Gutunaren azken Foro Iraunkorrean, TJEGei atxikitzen diran enpresa barrien akreditazioak emon ziran, 2021. urtetik atxikitako 30 enpresei gehituta. Enpresen, alkarteen, toki-garapeneko taldeen eta administrazioen borondatezko metodo eta konpromisoa da TJEG, hainbat mailatan, turismoaren garapena jasangarritasunaren ikuspegitik sustatzeko. Gaur egun, 168 dira TJEGri atxikitako espazioak, 20 herrialdetan banatuta, besteak beste, Urdaibaiko Biosfera Erreserban. **UM**

Sustabiz Fundazioak, giro bikainean, bere lehen harri-jasotze txapelketa ospatu eban

Guztira 11 kirolarik parte hartu eben, 8 emakumek eta 3 gizonek, Sustabiz Fundazioak antolatutako lehen harri-jasotze txapelketan, Gernika-Lumon. Bi harri motagaz burutu zan, zilindro eta bolagaz. Emakumeek, bi kategoriatan, 60 kilorainoko pisua eta absolutuan, 50 kiloko harria jaso eben. Gizonezkoak 87,5 kilokaz lehiatu ziran. Deialdiaren arrakastak eta giro onak 2024an herri kiroleetako ekitaldi barriekaz jarraitzera animatzen dabez antolatzailleak. **UM**



Arrola, arratzuar, nabarniztar eta mendatarren alkargunea

Arrola mendiko mugarri batek Arratzu, Mendata eta Nabarniz udalerrien arteko gune geografikoa markatzen dau, baina udalerrien ekimen batek alkargune bihurtu dau. Abenduaren 10ean *Batzen gaituen harria* ekimena ospatu zan. Mendizale taldeak, bakoitza bere udalerritik abiatu ziran, Arrolako mugarrian alkartu eta hiru herrien batasuna berresteko. Bertan, hiru herriek Arrola mendia partekatzea balioetsi eban komunikadu labur bat irakurri zan. Bertan, Arrolako *Oppiduma* dago, K.a. IV. mendetik K.o.go I. mendera okupatutako herrixka gotortu garrantzitsua. **UM**

EGUREN

ÓPTICA

CENTRO AUDITIVO

GERNIKA-LUMO
Domingo Bernaola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51

ARROLA

LAGUNE

IGANDE GUZTIAN
TODOS LOS DOMINGOS
10:00-14:00
ARRATZU

ARROLAKO
OPPIDUM-AREN
INTERPRETATIO
ZENTROA

Ezagutu Gaitegiz Arteaga
pausoz pauso

GAITEGIZ ARTEAGA
PAUSOZ PAUSO



Eguneroko keinu txikiekin, energia aurreztu dezakegu



ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA



www.eve.eus

DIBULGAZINO-PANELAK

Proiektu bakoitzari egokituak, diseinu barritzaile eta erabilera errazakoak. Material gogor eta jasangarriekaz. Eta beti ilustrazino ta eduki zehatzekaz.



NUEVA
EUROPA

www.nuevaeuropa.eus
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus
94 625 06 06 | 634 243 762
Gernika-Lumo



*Axola zaiguna
zaintzea,
zure esku,
gure esku.*



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consortiodeaguas.eus



BILBAO
BIZKAIA
be basque



@visitbiscay
visitbiscay.eus

